

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO  
ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN

## **SEXU-INDARKERIA**

**Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen kasua**

*Gazteen harreman afektibo-sexual heterosexualetan gauzatzen den  
sexu-indarkeriaren analisisa*

**SOZIOLOGIAKO GRADUA**

IKASTURTEA 2018/2019

**Egilea:** Naroa Santesteban Aristu

**Tutorea:** Arantxa Elizondo Lopetegui

Leioa, 2019ko maiatzaren 18a.

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisia ilustratze aldera”.

## LABURPENA

Ikerketa honetan, sexu-indarkeriaren auzia jorratzen da gazteen harreman afektibo-sexual heterosexualen esparruan. Inkesta baten bidez lortutako datuetan oinarrituta, sexu-indarkeriaren zenbait dinamika aztertu ditugu Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen artean, genero ikerketa eta feminismoaren ikuspegitik.

**Hitz gakoak:** *sexu-indarkeria, harreman afektibo-sexuala, sexu/generoa, hezkuntza afektibo-sexuala*

## RESUMEN

En este trabajo de investigación, se aborda la problemática de la violencia sexual en el ámbito de las relaciones afectivo-sexuales heterosexuales de la juventud. Se han analizado ciertas dinámicas de violencia sexual entre estudiantes de la Universidad del País Vasco, basadas en los datos obtenidos a través de una encuesta, desde la perspectiva de estudios feministas y de género.

**Palabras clave:** *violencia sexual, relación afectivo-sexual, sexo/género, educación afectivo-sexual*

## ABSTRACT

This research addresses the problem of sexual violence in the context of heterosexual sexual-affective relationships of youth. We have analyzed certain dynamics of sexual violence between the students of the University of the Basque Country, based on the data obtained through a survey, from the perspective of feminist and gender studies.

**Keywords:** *sexual violence, affective-sexual relationship, sex/gender, affective-sexual education*

# AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
1.1 Lanaren aurkezpena.....	4
1.2 Ikerketaren helburuak.....	5
2. Marko teorikoa.....	6
2.1 Sexu-indarkeria: kontzeptualizazioa.....	6
2.2 Maitasuna eta menderakuntza.....	15
2.3 Gaiaren inguruko ikerketak eta datu enpirikoak.....	22
2.4 Hipotesiak.....	34
3. Metodologia.....	34
4. Analisia.....	37
5. Ondorioak.....	52
Bibliografia.....	61
Eranskinak.....	66

# 1. SARRERA

## 1.1 Lanaren aurkezpena

Esango nuke *ahobero* entzuteak sortzen didan suminak eta sozialki deserosoa denarekiko dudak jakin-goseak bat egin dutela lan honen abiapuntuan. Edozein gizatalde zapalduren bizipenak zalantzan jartzeko edo baliogabetzeko kutsua duen oro iraingarriena iruditzen zait beti. Azpiazu-k (2017) aipatzen duen *subjektu zapalduaren begirada pribilegiatua*-ri esleitzen ez zaion eta daukan balioa zor diogulakoan nago. Goazen, orduan, begirada horietako batzuen betaurrekoak janztera, horren xedea izan baita ikerketa hau aurrera eramatera bultzatu nauena. Aztertuko dugun ikerketa hurrengoa izango da:

Gazteen harreman afektibo-sexual heterosexualetan jazotzen den sexu-indarkeriaren analisia: Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen kasua.

Gai hau ikertzea interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait. Izan ere, gure gizartean hezkuntza afektibo-sexualak gabezia kezagarriak ditu nire iritziz. Hezkuntza formalaren markoan, nekez jasotzen dugu honen inguruko informazioa, eta jasotakoa oinarri heteropatriarkal nabaria duela uste dut. Nire eta nire inguruko esperientzian oinarrituz, etxean ere ez da ohikoena auzi hauei buruz modu hezigarri batean mintzatzea, batez ere emakumeon kasuan. Faktore sozializatzaileengandik jasotzen ditugun estimuluek sexu-harremanen egitura biolentoa naturalizatzen eta legitimatzen dute, eta bakoitzak elkarrekintza horretan izango duen rola barneratzen du bere sexuaren arabera.

Honen ondorioz, uste dut harreman afektibo-sexualen barneko (bikoteetan, aldizkako harreman sexualetan...) sexu-indarkeria normalizatuta eta ezkatuta dagoela gehienetan. Erlazio hauetan norbanakook, emakumeok bereziki, sarritan sexu-harremanak izateko betebeharrak sentitzen dugula iruditzen zait, gure ezezkoa automatikoki baliogabetzen duen kontratu bat sinatu izan bagenu bezala. Indarkeria sexualaren iruditeri kolektiboak eta mitoek sinestarazten digute ezinezkoa dela bikotekide batek bestea bortxatzea, edo desirarekin hasi den harreman sexual bat eraso bilakatzea. Gainera, indarkeria-dinamika hau haustea zaila dela uste dut, arlo "pribatua" garatu eta geratu ohi delako.

Gure aurreiritzia emakumeak indarkeria honen biktima nagusiak izango direla da, sistema heteropatriarkalaren eraginez. Hala ere, emakumeak eta gizonak aztertuko ditugu, bi sexu/generoek errealitate berdina nola ulertzen eta bizitzen duten behatzeko. Era berean, sexu-harreman heterosexualetan jarriko dugun arreta soilik, gure ustez botere-dinamika sendoa garatzeko potentzial handiena izan dezaketelako.

Adinari dagokionez, gazteria ikertzea erabaki dugu arrazoi desberdinak direla bide. Gai sexualei buruz arituko garen heinean, emaitza errealago eta fidagarriagoak lortu ahal izango ditugula uste dugu. Izan ere, helduagoak maiz ez daude bereziki prest haien esperientzia sexualei buruz hitz egiteko. Era berean, indarkeria mota honen inguruko kontzientzia gazteriaren artean helduagoen artean baino zabalduagoa dagoela iruditzen zaigu, eta datu esanguratsuagoak biltzea ahalbidetuko digu honek. Honi tiraka, interesgarria izan daiteke gazteek duten ezagutza eta kontzientzia maila ezagutzea, bide horretatik hezkuntza afektibo-sexualean dituzten gabeziak behatzeko aukera izango baitugu.

Eremua mugatzeko xedez, EHU-ko ikasleak aztertzea erabaki dugu gure inguruko egoera ezagutzeko asmoz. Bide batez, honi buruz jada ikertutakoa ezagutzeko aukera emango digu honek, eta gure emaitzekin bat egiten duen ala ez behatu ahal izango dugu.

Bestalde, zehaztu nahi dugu lan honetan ez dela aurkituko biktimen eta erasotzaileen profil-eraketa saiakerarik, askotan egiten den legez. Gaur egun agerian dago ez dela existitzen biktima edo erasotzaileen bereizgarririk, beraz, ez diogu zentzurik ikusten hau egiteari.

Bada, esparru pribatuan gauzatzen den sexu-biolentzia hau publikotzeko saiakera apala izango da ikerketa hau.

## 1.2 Ikerketaren Helburuak

Hurrengoak dira ikerketaren ardatz izango diren helburuak:

### **Helburu orokorra:**

EHU-ko gazteriaren harreman afektibo-sexual heterosexualetan jazotzen den indarkeria sexuala aztertzea.

### **Helburu zehatzak:**

1. Biolentzia sexual hau pairatzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak erkatzea.
2. Indarkeria sexual hau ezartzeko erabiltzen diren taktikak eta aurrera eramaten diren praktika nagusiak identifikatzea.
3. Indarkeria horren aurrean gazteek dauzkaten erreakzioak edota erantzunak ezagutzea.

4. Sexu-biolentzia hau zer nolako maiztasunarekin gertatzen den behatzea.
5. Biolentzia hau norabide bakarrean edo bitan gauzatzen den ikustea, hau da, indarkeriaren biktimak ezartzaileak ere diren ala ez.
6. Gaiaren inguruan dagoen kontzientzia maila eta ezagutza kolektiboa aztertzea.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1 Sexu-indarkeria: kontzeptualizazioa

Indarkeria sexualari buruzko lana egingo dugun heinean, ezinbestekoa da honen kontzeptualizazioa egitea. Sexu-indarkeria definitu ahal izateko, lehenengo kontzeptuak marko legalean izan duen eboluzio historikoa ezagutu behar dugu. Ondoren, autore desberdinek indarkeria sexualari esleitu dioten zenbait esanahi emango ditugu aditzera. Bukatzeko, ikergai honetan indarkeria sexualak izango duen definizioa zehaztuko dugu, eta lanean zehar termino hau aipatzen dugunean, definizio horri egingo diogu erreferentzia.

#### Eboluzio historikoa marko legalean

Emakume guztion askatasun sexualaren aitopren legala berri samarra da. Egun, zigor-kodea da askatasun sexualaren kontrako delituak tipifikatzeko erabiltzen den erreferentzia-marko legala. Hurrengo lerroetan delitu sexualen eta, bide batez, indarkeria sexualaren eboluzio historiko, legal eta soziala ezagutuko dugu laburki (Fortún, 2014):

K. a. 130 eta k. o. 530 bitartean, Corpus Iuris Civilis edo Zuzenbide erromatar pribatuak jada legezko abisuak zeuzkan hurrengo titulu orokorraren barne: *“Atentados al pudor de una mujer honrada o de un impúber”* (Fortún, 2014: 53). Indarkeriak suposatzen zuen irainarekin lotzen zen. Foru Juzgo-ak, bere aldetik, emakume alargunak eta birjinak hartzen zituen biktima bezala, eta birjintasuna edo kastitatea ziren babestutako ondasun juridikoak. Beraz, gainerako emakumeak ez zituen indarkeriaren biktimatzat jotzen. Espainiako Foru Errealean, delitu sexualen epigrafea hurrengoa zen: *“De los que roban o engañan a las mujeres”* (Fortún, 2014: 53). Honen kasuan, erasotzailea bakarra zenean, emakume ezkongabeak, senardunak, ezkonberriak edo mojak hartzen ziren kontuan, eta emakume guztiak erasotzaile bat baino gehiago baldin bazegoen (Fortún, 2014).

Espainiako lehenengo kodea 1822koa da, eta aldaketa garrantzitsua suposatu zuen delitu sexualetarako, indar fisikoaren erabilera halabeharrezkoa ezabatu baitzen. 1848ko kodean, delitu guztiak titulu berberean multzokatu ziren, “Zintzotasunaren kontrako delituak” deitutakoa (Fortún, 2014):

*Este Título se divide en cinco capítulos dedicados al adulterio el primero, a la violación el segundo, el tercero a la corrupción de menores, el cuarto al rapto y el quinto a las disposiciones comunes [...]. Con este nuevo Código se introduce la diferencia entre violación y abuso deshonesto en función del tipo de conducta sexual presente en uno y otro crimen. Se considera violación el coito heterosexual consistente en el acceso carnal por vía vaginal. Por otro lado, los abusos deshonestos son todas aquellas prácticas sexuales diferentes al coito heterosexual pudiendo ser la víctima de ambos sexos (Fortún, 2014: 54).*

Fortún-ek (2014) azaltzen jarraitzen duen legez, 1870eko eta 1928ko zigor-kodeetan ez zen aldaketa nabarmenik gauzatu. 1973tik aurrera, ordea, aldaketa aipagarriak jazotzen hasi ziren. Hurrengoak dira garrantzitsuenetarikoak:

- 1978: adulterio- eta ohaidetze-delituak despenalizatu zituzten.
- 1983: prostituzio-delituak modu desberdinean idatzi zituzten.
- 1988: eskandalu publikoaren delitua ezabatu zen, eta exhibizionismo eta probokazio-sexualarena txertatu zituzten.
- 1989: “Zintzotasunaren kontrako delituak” epigrafea “Askatasun sexualaren kontrako delituak” izenak ordezkatu zuen, babestu beharreko ondasun juridikoa sexu-askatasuna zela ezarri zelako, emakumearen zintzotasunaren ordeiz. Biktimaren ekintzak alde batera utzi behar zirela erabaki zuten. Aldaketa honek larrigarri batzuk gehitzea eta termino batzuk aldatzea suposatu zuen, agresio sexualaren kontzeptuaren mesedetan. Era berean, bikote ezkonduen barneko bortxaketa txertatu zen, lehen delitu honek ezkon-lotura ez egotea eskatzen baitzuen.
- 1995: indarrean den zigor-kodea onartu zen, non indarkeria fisikoa eta larderia delitu sexual desberdinen irizpide bereizle bezala ezarri ziren. Honela, bortxaketa sexu-agresioaren modalitate bat da.
- 1999: berdinen arteko jazarpena gehitu zuten eta bortxaketaren berariazko modua berrartu zen.
- 2003: proxenetismoa zigortu zen berriz ere, eta genital-mutilazio femeninoaren zein sexu-esplotaziorako pertsonen trafikoaren tipifikazioa agertu zen. Bestalde, bortxaketaren delituaren barne sartu egin zen kopulazio bajinal edo anala beste gorputz-atalekin.

Autoreak zertxobait gehiago sakontzen du:



*Posteriormente [...], se añade a la rúbrica “Delitos contra la libertad sexual” el término “indemnidad sexual”. Hasta esta reforma, el bien jurídico protegido era la libertad sexual, que se identifica con el derecho a decidir con qué personas y en qué circunstancias se realizan o reciben actos de tipo sexual. [...] Este concepto de libertad sexual implica la existencia de una capacidad [...] para comprender el significado y la transcendencia de los actos sexuales, y una capacidad para quererlos libremente. Sin embargo, hay personas que carecen por definición de estas capacidades como son los menores o las personas incapaces. Por este motivo se amplió el bien jurídico protegido añadiendo en los casos de los menores y de personas incapaces el término de indemnidad sexual (Fortún, 2014: 56).*

Bestalde, Genero Indarkeriaren Legea (Lege Organikoa 1/2004) ere aipatu behar dugu azaletik. Izan ere, indarkeria sexuala bikote harreman baten barnean jazo daiteke, eta indarkeria mota honen ingurukoa da lege hau. Lege honen helburua, bada, hurrengoa da:

*Actuar contra la violencia que, como manifestación de la discriminación, la situación de desigualdad y las relaciones de poder de los hombres sobre las mujeres, se ejerce sobre éstas por parte de quienes sean o hayan sido sus cónyuges o de quienes estén o hayan estado ligados a ellas por relaciones similares de afectividad, aun sin convivencia (Fortún, 2014: 67).*

Lege honek erreferentzia egiten dio indarkeria fisiko zein psikologiko orori, eta honen barne daude askatasun sexualari egindako erasoak, mehatxuak, hertsapena edota askatasunaren gabetze arbitrarioa, besteak beste (Fortún, 2014).

Amaitzeko, eta gurera hurbiltzeko, EAE-ko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea ekarriko dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko legediak emakumeen kontrako indarkeria nola definitzen duen ezagutzeko. Aipatutako lege honen 50. Artikuluaren arabera:

*A los efectos de la presente ley, se considera violencia contra las mujeres cualquier acto violento por razón del sexo que resulte, o pueda resultar, en daño físico, sexual o psicológico o en el sufrimiento de la mujer, incluyendo las amenazas de realizar tales actos, la coacción o la privación arbitraria de libertad que se produzcan en la vida pública o privada (BOE, 274. Zenbakia, VII. Atalburua, 50. Artikulua).*

Behin hurbilpen hau eginda, indarkeria sexualaren terminoak legediatik at ere badituen esanahi desberdinak ezagutzeari eta gure ikerketan izango duen definizioa finkatzeari ekingo diogu.

## Definizio desberdinak eta gurea

Ikusi dugun bezala, kontzeptuak eboluzio legala eta soziala izan du denboran zehar. Osborne-ren (2009) arabera, feminismoak lortu du indarkeria sexuala emakumeen menderakuntzan elementu garrantzitsu gisa identifikatzea. Familien ohorearen kontrako delitutzat jotzetik, emakumeen aurkako ezezagunen zein hurbileko pertsonen eraso bezala hartzeraz igaro da.

Indarkeria sexualaren inguruan jardungo dugun heinean, marko legalean izan duen ibilbidea ezagutzeaz gain, gure ikerketan izango duen definizioa jorratzea ere berebizikoa da. Horretarako, lehenetik eta behin, kontzeptuaren inguruan lan egin duten autore edota erakunde desberdinen hainbat esanahi, hautemate edota eztabaida aditzera emango ditugu. Xehetasun ugari izan dezakeen terminoa dela behatuko dugu hurrengo lerroetan zehar.

Hasteko, Osasunaren Mundu Erakundeak (2002) ezarritako definizioari helduko diogu: desiratzen ez den ekintza sexual, ekintza sexuala burutzeko saialdi edota komentario edo intsinuazio sexual oro, edo hertsapenaren bitartez pertsona baten sexualitatea erabiltzeko edo merkaturatzeko ekintzak, harreman mota edozein dela ere, edozein esparrutan, etxea zein lantokia barne.

Indarkeria sexualak, beraz, ekintza anitz hartzen du barne, hala nola, hertsapenaren bitartez gauzatutako harreman sexualak afektibotasunaren testuinguruan. Giza, Sexu eta Ugalketa Eskubideak urratzen ditu. Giza Eskubideen bortxaketen artean, ikusgaitasun gutxien eta hedapen gehien duenatarikoa da (OME, 2002).

Fortún-ek (2014) azaltzen duen bezala, beste edozein biolentzia motaren antzera, sexualak ondorengo ezaugarriak ditu: lege-zigorra dauka; ondorio fisiko edota emozional garrantzitsuak izan ditzake; kontrol-, dominazio- eta uzkurtze-modua da; gatazka pertsonalekin edo amorru zein frustrazio sentimenduekin borrokatzeko hartzen den jokabidea da. Bestalde, López-ek (2012) pertsona baten askatasunaren kontra egiten duen edozein sexu-izaerako ekintza dela adierazten du, eta bere funtsa pertsona horren baliozko onespeneraren falta dela (Fortún, 2014).

Idea hauek berresten dituzte García, Olivares, San Vicente & Jaime-k (2004): biolentzia sexualak pertsonen sexu-askatasuna bortxatzen du, giza-askatasunaren barneko funtsezko eskubidea dena. Bere oinarria da pertsonen harreman sexualak noiz, nola eta norekin izaten dituzten erabaki ahal izatea, hertsapenik gabe. Antona-k eta Madrid-ek (2007) adierazten dute sexu-indarkeria hainbat modutan ager daitekeela, halaber, hertsapena bikoteetan, abusuak, prostituzio behartua, pertsonen salerosketa, sexu-jazarpena, bortxaketak, genitalen mutilazioa edo ezkontza goiztiarra.

Hortaz, praktikak askotarikoak izan daitezke: sexu-harremanen inposatzea, objektuak bagina edo uzkiez sartzea, beste pertsonak egin nahi ez dituen praktikak aurrera eramatera derrigortzea, onespenez gabe biluzien argazkiak ateratzea, exhibizionismoa, antisorgailuak erabiltzeko edota sexu-transmisioko gaixotasunen kontrako neurriak erabiltzeko eskubidea ukatzea, abortatze behartua... García-k et al.-ek (2004) biolentzia sexuala gauzatzen den eremuaren arabera sailkatzeko proposamen bat daukate. Batetik, eremu familiarrean jazotzen dena, adibidez, bikote batek ezarritakoa edo gurasoek adostutako genitalen mutilazioa. Bestetik, familiaren eremutik at gertatzen dena, ezezagun edo ezagun ez-familiar batek ezarritakoa, laneko sexu-jazapena edota emakumeen salerosketa, esaterako (Fortún, 2014).

Fortún-ek (2014) esaten duenaren arabera, indarkeria sexualaren tipifikazioan, hurrengoa da sailkapena:

- Sexu-agresioa: onespenez gabeko harreman sexualak, larderia edo bortizkeriaren bidez inposatutakoak.
- Sexu-abusua: onespenez gabeko harreman sexualak, larderia edo bortizkeriarik gabe gauzatutakoak.
- Sexu-jazapena: onespenez gabeko eta izaera sexualeko ahozko, ez-ahozko edo fisikoak diren jokabideak lan- edo irakaskuntza-eremuan.

Osborne-k (2001), bere aldetik, sexu-agresioa definitzeko, hertsaduraren elementuan jartzen du arreta nagusiki. Definizio juridikoak ez bezala, alde batera uzten ditu indarkeria hori ezartzeko erabiltzen diren bitartekariak. Ulertzen du pertsona baten nahien kontra aurrera eramaten den edozein ekintza sexuala dela, ezartzeko modua edozein dela ere. Ildo honetatik doaz Corral, Echeburúa eta Amor (1997) ere, agresio sexuarekin biktimaren pertzepzioa lehenesten baitute, erasoaren forma zein egoeraren aurrean.

Sexu-agresioen barnean, lau mota sailkatu daitezke erasotzailearen eta biktimaren arteko erlazioari erreparatuz: ezezagunek egindako erasoak, ezagunek egindako erasoak, bikote-harreman baten testuinguruan gertatutakoak eta taldean egiten diren erasoak. Bikote-harremanen testuinguruan gertatutakoetan arrisku handiagoa dago etorkizunean erasoak jazotzeko (Fortún, 2014).

Gure kasuan, harreman afektibo-sexualei buruzko ikerketa burutuko dugun heinean, ezagunek egindako eraso sexuarekin eta bikote-testuinguruan gauzatutako eraso sexuarekin sakonduko dugu zertxobait gehiago, Fortún-en (2014) eskutik:

- Sexu-erasotzailea ezaguna denean: izan daiteke laguna, auzokidea, lankidea, lagunaren laguna edota biktimarekin intimitate mailaren bat duen pertsona. Alkohola dagoen testuinguru sozialetan gertatu ohi da. Suerta daiteke borondatez izaera sexuarekin ekintza bat hastea, eta momentu jakin batean

biktimak praktika batzuk egin nahi ez izatea. Une horretan erasotzaileak biktima derrigortzea da kategoria honen adibide bat.

- Sexu-erasotzailea bikotea denean: gero eta adierazgarritasun handiagoa hartzen ari den kategoria da hau. Kasu honetan, erasotzaileak eta biktimak bikote harreman bat daukate edo izan dute, desiratutako harreman sexualak izan dituzte zenbaitetan, baina une zehatz batean biktimaren onespena urratzen da. Erasotzaileak biktimaren gaineko eskubideak dituela kontsideratzen du, eta nahi ez duen harreman sexual bat aurrera eramatera behartzen du. Hau modu desberdinen bitartez gerta daiteke: indar fisikoa, mehatxuak, biktima alkohol edo drogen efektupean dagoenean, biktima lo edo konortetik gabe dagoenean... Sexu-indarkeria mota hau, fisikoa eta psikologikoarekin batera, bikoteen aurkako indarkeriaren barne egongo litzateke.

Cerezo-k (2006) ere honi egiten dio tira, eta *tratu txar sexual* kontzeptua definitzen du:

*Se entiende por maltrato sexual cualquier contacto sexual practicado contra la voluntad de la víctima, normalmente acompañado de amenazas, coacción, abuso de superioridad, engaño o en estado de inconsciencia por parte de la mujer. En este caso, se trata de abusos y agresiones sexuales cometidas en el marco de la pareja* (Fortún, 2014: 52).

Bestalde, Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres-ek (2003) botereari eskaintzen diote arreta berezia indarkeria sexualaren esangura aztertze aldera. Haien hitzetan, indarkeria sexuala:

*Es manifestación del desequilibrio de poder en función de raza, etnia, clase social, género, edad, religión, orientación sexual, escolaridad, etcétera. En las relaciones hombre-mujer se explica a partir de identidad genérica en un entorno patriarcal asimétrico y violento* (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003: 45).

Autore hauen arabera, sexu-indarkeria gutxitan jotzen da osasun publikoko arazotzat. Indarkeria sexuala eta horren inguruko ideiak zein bizipenak plano subjektibo eta inkontziente batean dauden heinean, indibidualki eta kolektiboki, teoritik errealitatera joatea beharrezkoa da patriarkatua materializatzeko modua ulertzeko. Hutsune informatiboa dago gai honen esanahien inguruan, jarrera edo ekintzen inguruan baino gehiago, sexu-indarkeria ahalbidetzen duen marko teorikoaren inguruan. Biolentzia ez da mugatzen delitu edo ekintza botitzera, haratago doa. Kontu hauek aintzat hartuta, autore hauek planteatzen dute indarkeria sexuala, funtsean, botere-ariketa bat dela, genero-harreman bidegabeak dauden testuinguru batean gauzatzen dena (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003).

Ortegak, Riverak eta Sánchez-ek (2008) interesa daukate sentimenduzko harremanen barnean, harreman hauen formaltasuna aparte utzita, jazotako sexu-izaerako jokaera bortitzen formetan. Oso ugariak dira: sexu-abusua, irainak, lizunak, komentario sexualak, mezu pornografikoen bidaltzea, orientazio sexualarengatik bazterketa, ukitzeak, musu ematea, asmo sexuarekin igurtzea, biluztera behartzea, bortxaketa... Adierazten duten legez, formen eta larritasun mailen ugaritasun honek eta, batez ere, horietako batzuk gortetzeko modu ausartatzat jotzeko joerak, sexu-indarkeriaren kontzeptualizazioa zailtzen dute. Era berean, dominazio-otzantasun eskema erlazionalak biktima zaurgarri bihurtzen du. Izan ere, honen eraginez, biktimak zailtasunak izan omen ditu desberdintzeko batetik interes sakona, eta bestetik hertsadura zein bere nahien edota gustuen gaineko dominazioa. Hau dela eta, biktimizazio fenomeno larrienak lotura afektibo handiko harreman interpersonalen markoan suertatu ohi dira.

Hernández-ek, Tapia-k, Reynaga-k eta Mendoza-k (2015) indarkeria sexualaren ondorengo definizioa zehazten dute:

*Consiste en la consecución de actos sexuales mediante la coerción, la intimidación, el chantaje, las lesiones o las amenazas de daño físico. Los actos varían desde acercamientos no deseados hasta la violación; es decir, forman parte de un continuo de conductas que pueden afectar la salud mental de la víctima. [...] Involucra algún tipo de persuasión para que se den intercambios sexuales no consensuados y acontece con mayor frecuencia en relaciones de cortejo, noviazgo o románticas (Hernández et al., 2015: 27-28).*

Adierazten dute harreman erotiko-afektiboetan abusuzko portaera sexualak normalak edo naturalak direnaren ustea badagoela, eta bereziki garrantzitsua dela sinesmen horren deuseztatzea. Era berean, azpimarratzen dute indarkeria sexuala sotila izan daitekeela eta limurtzearen bitartez ezarri daitezkeela onespenez gabeko harreman sexualak. Harreman afektibo-sexualen esparruan gertatzen da maizago, eta hertsadura deitzen diote autore batzuk: *“Esto se conoce como coerción sexual en las citas románticas y se refiere a cualquier tipo de imposición física o emocional que una persona utiliza para conseguir encuentros sexuales”* (Hernández et al., 2015: 28).

Hertsadura sexuala jorratzen dute beste autore batzuk ere, alegia, Saldívar, Ramos eta Romero-k (2008). Diotenez, hertsadura sexuala definitzeak, indarkeria sexualaren edozein modurekin gertatzen den era berean, arazo kontzeptual eta metodologikoak ekartzen ditu, kontzeptua beste kontzeptu batzuekin batera erabili izan delako haien arteko trukean, hala nola, sexu-zirikatzeko, indarkeria bikoteetan eta sexu-agresioa. Autore hauek, ordea, ziurtatzen dute problematika bakoitzak konnotazio desberdinak dituela. Oro har, sexu-agresioan zein bikoteetako indarkerian, eraso fisikoa erabiltzen da. Hertsadurak, aitzitik, praktika multzo heterogeneoa hartzen

du barne harreman sexuala lortzeko: presio psikologiko sotil eta mintzairaren erabileratik, eraso fisikoraino. Biolentzia forma honek buruko osasunerako, sexu-osasunerako zein ugaltza arazo larriak sor ditzake. Definizio hau zehazten dute:

*La coerción sexual se define como cualquier tipo de presión física o emocional ejercida por una persona para imponer a otra actos de orden sexual en el contexto de un encuentro heterosexual de mutuo acuerdo para salir juntas, para conocerse o sostener una relación romántica o erótica, o en una relación más formal como el noviazgo (Saldívar et al., 2008: 47).*

Catieli-k (2016) ere hertsadura sexualari tira egiten dio. Hertsadura sexualaren eta indarkeria sexualaren arteko bereizketa egiten du. Azaltzen duen bezala, bikote-harremanak asaldatzen dituzte sexu-indarkeriak zein hertsadurak. Sarritan, indarkeria sexuala indarraren bidezko bortxaketan zentratzen da, alabaina, informazio gutxi dago bikotekide batek besteari ezartzen dion hertsapenaren inguruan. Presio honen helburua beste pertsona konbentzitzea da, erabat ados ez dagoen arren. Auzi hau da hertsadura bezala ezagutzen dena. Indarkeria eta hertsadura sexuala oso antzekoak baina, aldi berean, oso desberdinak dira autorearen aburuz. Desberdintasun nagusia da hertsadura sexuarean taktika sotilek pisu gehiago daukatela, eta indarkeria sexuarean taktika zuzen eta bortitzagoak gailentzen direla (Catieli, 2016).

Hernández eta González-ek (2009) hertsadura eta sexu-agresioaren arteko bereizketa lantzen dute. Bikoteen barnean jazotzen diren biolentzia formen artean, sexuala ikusgaitasun gutxien duena da. Horregatik ez da oso ezaguna munduko neska nerabeen herenaren lehen esperientzia sexuala behartua dela. Autore batzuk gai hau ikertu dute, eta hertsadura sexualaren kontzeptua esleitzen diete batzuk indar fisikorik gabe gauzatutako indarkeria sexualaren forma sotilei (xantaia, ahozko ekitea, erlazioa hausteko mehatxua...). Beste batzuk, ordea, ez dute muga hau hain garbi. Adams-Curtis eta Forbes-entzat (2004), esaterako, hurrengo da hertsadura sexuala:

*Cualquier situación en la que se emplean métodos verbales o físicos para conseguir una actividad sexual, que no es consentida libremente. En la misma línea, se la considera como un abanico de estrategias que van desde el uso de la fuerza, la amenaza de violencia o la intoxicación, hasta fórmulas más sutiles como la manipulación emocional (Hernández eta González, 2009: 41).*

DeGue eta DiLillo-k (2005), ordea, indarraren erabilera azpimarratzen dute bereizketa faktore gisa hertsadura eta sexu-erasoaren artean. Honela definitzen dute autore hauek hertsadura sexuala: *“un tipo de comportamiento sexual inapropiado, que consiste en usar tácticas no físicas (v. g. presión verbal, mentiras y disputas continuas) para conseguir un contacto sexual no deseado”* (Hernández eta González, 2009: 41).

Autore batzuk hertsadura sexualerako estrategiak edota taktikak identifikatzen dituzte. Livingston, Buddie, Testa eta VanZileTamsen-en (2004) kasuan, lau estrategia sailkatzen dituzte:

- Ahozko pertsuasioa: hemen taktika negatiboak (atsekabe adierazpenak, ahozko erasoak, uzkurtasuna...), positiboak (hitzezko sedukzioa...) eta neutroak (karga emozionalik gabekoak) bereizten dira.
- Ekitea: etengabe erabilitako ahozko taktikak edo taktika fisikoak dira.
- Pertsuasio fisikoa: laztan eta musuetatik, eraso sexualeraino hartzen du barne.
- Sarbide-irabaztea: hurbiltzeko aitzakiak bilatzean datza.

Struckman-Johnson, Strucman-Johnson eta Anderson-i (2003) dagokionez, taktiken sailkapen bat ere proposatzen dute. Hauek hertsadura eta agresioa abusu-maila desberdinetan banatzen dituzte, larritasun gorakorrekoak:

1. Maila: kitzikapen sexuala, ez ahozkoa (laztanak, arropa kendu...)
2. Maila: manipulazio emozionala (ahozko ekitea, uzte-mehatxuak, xantaia...)
3. Maila: sarbidea errazten duten taktikak (alkoholaren kontsumoa aprobetxatu edo suspertu...)
4. Maila: indar-fisikoaren erabilera

Bada, esanahi ugari aztertu ostean, gure definizio propioa eratzeari ekingo diogu. Horretarako, behatutako definizio desberdinetan oinarrituko gara eta haien arteko nahasketa edo moldaketa moduko bat egingo dugu, gure lanean aztergai den auzi konkretuari egokitzeko.

Harreman afektibo-sexual heterosexualetan gauzatzen den indarkeria sexual oro ikertu nahi dugun heinean, esanahi nahiko zabala bilatzen dugu, ez dugu mugatuko soilik praktika edo ekintza mota jakinetara, autore batzuk egiten duten ez bezala. Era berean, ekintza horiek aurrera eramateko erabiltzen den edozein taktika hartu nahi dugu kontuan, beraz, esparru honetan ere ez dugu mugaketarik egiteko asmorik. Zentzu horretan, Osborne-ren (2001) ildotik joango gara hein batean. Bestalde, Corral et al.-en (1997) ideietatik ere edango dugu, izan ere, arreta nagusia pertzepzioetan ipini nahi dugu. Gure kasuan, biktimaren hautemateari emango diogu entzutea batez ere, baina baita erasotzailearen pertzepzioari ere. Beraz, gure definizioak zabala, muga zurrunik gabea eta ulertteraza izan behar du. Horren formulaziorako oinarri nagusia Saldívar et al.-en (2008) hertsadura sexualaren definizioa izan da. Bada, hurrengoa da zehaztu dugun definizioa:

**Norbaiti edozein sexu-harreman mota inposatzeko ezartzen den presio fisiko edo emozional oro.**

## 2.2 Maitasuna eta menderakuntza

Jakina denez, lan honetan aztertu nahi den indarkeriak heteropatriarkatuaren sistema zapaltzailea du oinarri. Hortaz, berebizikoa da honen inguruko teoria desberdinen eta, batez ere, ekarpen feministen berrikuspen bibliografikoa egitea, aztertuko ditugun dinamiken esanahia ulertu nahi badugu.

### MENDERAKUNTZA

Millet-ek (1986) aldarrikatzen duen bezala, sexua politikoa da, eta politika botere-harremanetan oinarritzen da. Botere-harremanen bitartez, gizarte-talde batek beste gizarte-talde bat menperatzen du. Bada, *politika* kontzeptua zabaltzen du pertsonala politikoa denaren aldarri entzutetsuaren bitartez. Politika sexualaren ideia garatzen du eta patriarkatua identifikatzen du: gizonek emakumeen gain ezartzen duten dominazioa.

Millet-ek hiru kategoria bereizten ditu: estatusa, izaera eta rola. Genero maskulinoak goreneko estatusa dauka, eta honetan oinarrituz garatzen edo barneratzen ditu bere izaera eta rola, esleipen naturala izango balitz bezala. Halaber, generoak eraikuntza sozialak dira eta bakoitzari izaera desberdina esleitzen zaio: kategoria femeninoari otzantasuna, lasaitasuna, besteen zaintza... eta kategoria maskulinoari boterea, bortizkeria, indarra... Sistema patriarkalak barne-kolonizazioa eramaten du aurrera: genero-kategoriak gure baitan txertatu eta sexuaren arabera, pertsonak femenino edo maskulino bihurtzen ditu jaiotzatik. Honela, kategoria hauen arteko botere-harremana barnerarazten du eta emakumeak gizonen menpe uzten dituen ordena sozial bat finkatzen du, non gizonezkoek botere-instituzio guztiak dominatzen dituzten. Izan ere, Amurrio-k (1995) azpimarratzen duen legez, emakumeek garrantzia daukate instituzio bakar batean, familian, eta garrantzi hori euren menpekotasun eta jazarpenean oinarritzen da. Honi tiraka, aipatzekoa da Beauvoir-ek (1975) behatu zuena: eme ugaztun guztietatik emakumea da alienatuena, eta alienazio hau gehien ukatzen duena. Bera da organismoaren esklabizazio sexuala erraztasun handiagoz onartzen duena. Bada, nola gertatzen da barne-kolonizazio hau?

Hau ulertzeko, Bourdieu-k (1997) azaldutako botere eta sistema sinbolikoak dira gako: sistema sinbolikoak, errealitatea ezagutzeko eta interpretatzeko balio duten tresnak dira, hala nola, lengoia, erlijioa, artea... Hauen bidez, ezagutza sortu, eta kontsentsu soziala lor daiteke. Tresna hauek eliteek sor edo kontrola ditzakete: sinbolo hauen ekoizpen baliabideak euren esku daude, hau da, botere sinbolikoa daukate. Modu honetan, errealitatea ulertzeko modu bat inposatzen dute, haien interesen alde.



Sistema hau errealitate unibertsal moduan aurkezteak talde batzuen arteko ezberdintasunak bermatzen ditu, ezarritako jazarpena ezkutatzuz. Sistemak eta ordenak bere birsorkuntza eta batasuna bermatzen ditu, eta legitimazioa eskuratzea lortzen du. Beste era batera esanda, gizonen agindupean dauden botere-instituzio horiek botere sinbolikoaren bitartez eskuratzen dute errealitate soziala sortzeko ahalmena eta, bide batez, denboran irautekoa. Gauzak zer diren, zer ez diren eta zer izan daitezkeen erabakitzeko gaitasun hori dominazio-tresna gisa erabiltzen dute, biolentzia sinbolikoa ezartzen dute, eta emakumeen aurkako biolentzia normalizatzen dute. Izan ere, menperatzeko zilegitasuna eskuratzen dute, menderatuek ez dutelako zapalkuntza hautematen. Sistema eta eredu kultural honen baitan sozializatu diren heinean, zentzu bat ematen diote menderakuntzari, logika bat, eta indarkeria hori hautemateko zailtasunak izan ohi dituzte (Bourdieu, 1997).

Etengabe birsortzen den ordena honek gizonezkoen menperakuntza berresten duen makina sinboliko baten moduan jarduten du, sexuen arabera banaketan oinarritutako egitura inposatuz: lanaren banaketa, esparru publiko eta pribatuaren banaketa, betebeharren banaketa... Hau gorputzen eraldaketa sakon eta konplexu baten bidez gauzatzen da, non gizonak gizontasuna erakustea eta emakumea feminitatearen adierazle izatea legitimatzen den (Bourdieu, 2000).

Emakumeak jarrera otzana erakustera derrigortuta dauden era berean, gizonek menperatzaile rola bereganatzeko presioa daukate, eta uste dute gizontasuna indarkeriaren bitartez erakutsi behar dutela sozialki onartuak izateko (Bourdieu, 2000).

Gizonek omen duten presio honen ildora, Hardy-k eta Jiménez-ek (2001) ideia interesgarriak plazaratzen dituzte: kultura patriarkalak gizonei botere-abantailak ematen dizkien era berean, bakoitzaren nortasuna baliogabetzen duten estereotipoen gatibu egiten ditu, eta beren askatasuna zapaltzen du. Honen adibide dira sarritan hartzen dituzten arriskuak, batzuetan emakumeen aurkako indarkeria bilakatzen direnak. Adibidez, gizonak erabakitzea preserbatiboa ez erabiltzea harreman-sexualetan, emakumea guztiz ados ez egon arren. Emakumeenganako biolentzia bilakatzen diren ekintzeekin lotu dezakegu artikuluaren hurrengo adierazpena: arau patriarkalaren arabera, sexu-bulkadak kontrolatzeko ezintasuna gizontasunaren ezaugarria da. Ondorioz, beti sexualki ase egon behar duela uste du gizonak, eta ezin duela asetzeko aukerarik galdu (Hardy eta Jiménez, 2001).

Maskulinitatearen ezaugarriei jarraiki, elementu nagusia boterea dela iragartzen dute autoreek. Botereak, sentimendu, emozio eta behar afektiboek kontrola dakar berekin. Kontrol hau galtzekotan, besteek ezaugarri femeninoak esleitzeko arriskua egongo litzateke, guztiz arbuiatzen direnak. Gizonak, afektua adierazteko, berriro amaren menpeko ume bilakatuko dela uste du. Hau dela eta,

emakumeekiko garatzen dituen harremanak ez dira afektiboak, boterezkoak dira, eta emakumearen jabe izateko derrigorra sentitzen du (Hardy eta Jiménez, 2001: 80).

Osborne-k (2009) azaltzen duenarekin lotura zuzena dauka honek: maskulinitatearen bereizgarria da “femeninoa” den ororen ukapena eta debaluazioa. Izan ere, emakumea “bestetasuna” da, gizona EZ dena (Beauvoir, 1975). Gizarte patriarkalean gizonak nagusigoa dauka ordena guztietan, batez ere emakumearekin dituen harremanetan, eta gehiagotasun horri eusteko emakumea azpiratu behar du. Gizonak ez du emakume erreala hautematen, estereotipo bat baizik. Honela, bera dagoen plano berdinean kokatzeko erresistentzia egiten du. Ez da elkarrekikotasun bat existitzen (Osborne, 2009).

Gil Calvo (1997) bat dator baieztapen hauekin, izan ere, maskulinitatea ideologia desberdinen sustapenaren ondorioa dela dio. Besteak beste, ideologia patriarkala nabarmentzen du, aita-gizonaren ideia sostengatzen duena, non gizonak boterea eta kontrola duen seme-alaben, emakumeen eta munduaren gain. Modernitatearen ideologia indibidualistaren garrantzia ere azpimarratzen du: banakoa da funtsezko elementua, arrazionala eta jakintsua, boterea erabil dezakeena bere borondatea inposatzeko.

Aipatutako guztia dela eta, Hardy-k eta Jiménez-ek gizonezkoek gaur egun dilema bat dutela adierazten dute: nola izan gizon, horrek dakarren rol eta estereotipoekin, eta aldi berean, emakumezkoak berdintasunez eta modu bidezko batean tratatu? Hau da gaur egungo gizonezkoen erronka, izan ere, generoaren eraikuntzak ekintza eta jarrera zehatz batzuk suspertzen ditu, aldebakarreko botere-harreman gisa materializatzen direnak: “dominazio maskulinoa versus otzantasun femeninoa” (Hardy eta Jiménez, 2001: 79).

Emakumeek pairatzen duten jazarpenaren eta beren rolen azterketan, Gayle Rubin edota Monique Witting bezalako autoreek heterosexualitate normatiboari eskaintzen diote arreta berezia. Witting-ek, generoaren eta sexuaren naturaltasuna zalantzan jartzen du, eta gizartearen eraikuntza soziokulturaletako bat heterosexualitatearen inposizioa dela dio, heterosexismoa sortzen duena, emakumearen jazarpenaren iturri dena. Rubin-ek heterosexualitate normatiboaren iraultzaren beharra aldarrikatzen du, emakumeen eta gutxiengo sexualen dominazioa baitakar. Rubin-en ustez, sexu/genero sistema honek sexualitatea derrigorrezko ekintza heterosexual bezala antolatzen du. Modu honetan, rol sexualen inposaketa eta praktika ez hegemonikoen zapalkuntza eramaten du aurrera (Burgos, 2010).

Rubin-ek (1986) heterosexualitatearen eta feminitatearen eraikuntzaren teoria psikoanalitiko klasikoari buruz aritzen zaigu. Honen arabera, fase preedipikoan

ez dago desberdintasun psikikorik umeen artean sexuaren arabera. Gainera, ez da aurkitzen halabeharrezko heterosexualitatea, bi sexuek desiratzen dutelako amaren irudia. Horrez gain, "nesken" artean ez da behatzen femeninotzat jotzen den jarrerarik. Freud-ek ondorioztatzen du neskek ez balioko amaren heterosexualitateari aurre egin behar, agian sexualitate desberdin bat garatuko luke. Jaques Lacan-ek honen interpretazioa egiten du: etorkizuneko feminitatea, eta barne hartzen duen heterosexualitatea, anatomiari esleitutako esanahi kulturalen ondorioa da (Rubin, 1986).

Honi tiraka, azaltzen du krisi edipikoaren prozesuan zehar umeek kultura falikoa barneratzen dutela. Faloa zakilari esleitutako esanahien multzoa da, ez kastratua, gizona. Emakumea esanahi horiek betetzen ez dituen da, kastratua. Faloa maila goreneko sexu-organoa dela eta bagina behe-mailako genitala dela ikasten dute. Ondorioz, neskek genital-gutxiagotasuna sentitzen dute. Hurrengoa da krisi edipikoaren prozesua sexuaren arabera (Rubin, 1986):

→ Mutilak bere ama faloare truke aldatzen du. Falu hori etorkizunean emakume baten truke aldatu ahal izango du.

→ Neskek ez du falorik, eta faloa da emakume batengatik truka dezakeen ezaugarri bakarra. Hau dela eta, genital-gutxiagotasuna sentitzen du, derrigorrezko heterosexualitatearen ondorioz. Hau honela, neskek amarekiko, aitarekiko eta bere buruarekiko harremanak birdefinitzen ditu eta bere desira aktiboaren jazarpena gertatzen da honela: erotismo klitorianoaren zapalkuntza vs. erotismo baginalaren hobespina. Azkenik, emakume femenino, pasibo eta heterosexual batean bihurtzen da.

Kultura faliko honen ondorio izan daiteke Hardy-k eta Jiménez-ek (2001) behatutakoa: maskulinitatea sexu-organoaren geometriarekin erlazionatuta dago gizon askoren ustez, eta gizontasuna neurtzeko tresna bezala erabiltzen dute. Baita Bourdieu-k (2000) ondorioztatutakoa ere: organo sexualen arteko desberdintasunak eraikuntza sozialetik jaiotak dira, androzentrismoaren desberdintasun printzipioetan dute oinarria eta gizona eta emakumea bi aldaera ezberdin gisa ikustea eragiten dute: gorenekoa eta behekoa.

## **MAITASUNA**

Maitasun erromantikoaren mitoa, maitasunaren benetako izaeraren inguruan gizartean onartzen den eta egiaztatu gabeko sinesmen multzoa da. Maitasun eta harremanei buruzko iruditeria kolektibo honek ondorio anitzak ditu sistema patriarkalean sozializatzen diren pertsonengan, hala nola, barne-gatazkak edota

biolentziaren normalizazioa harreman afektibo-sexualen eremuan: mutila menderatzailea eta neska otzana den harremanak garatu ohi dira (Velasco, 2018).

Osborne-k (2009) ere honen berri ematen digu, hurrengo lerroetan adierazten duen legez:

*El ideal — autoasumido y heteroimpuesto— para las mujeres es, en palabras de Adrienne Rich (1983, pp. 148-149), «la adicción al "Amor" (en la carrera de una mujer se traduce en la idea de abnegación), amor a través del sacrificio como forma redentora». Esta «sobredosis de amor» femenino se la apropian los varones, en un entorno que lo favorece y lo aprueba socialmente, conduciendo a un déficit de igualdad que coloca a las mujeres en una situación de inferioridad (Osborne, 2009: 49).*

Sakontzen jarraitzen duen bezala, arau sozialek hurrengo ezartzen dute: gizona maitasuna eta zaintza jasotzeko eskubidea eta bere burua asetzeko askatasun osoa dauka. Era berean, bere buruarentzat nahi beste gordetzeko askatasuna dauka. Emakumeak, ordea, emateko eskubidea dauka, baina bere buruarentzat gordetzeko askatasun oso murrizta dauka. Modu honetan, gizona, emakumearen maitasuna eta zaintza emateko ahalmenaren jabe egiten da, kontrol eta botere posizioak betetzen dituelako. Autoritate maskulinoa, maitasun alienatuaren metaketa da: *“Los hombres pueden apropiarse continuamente de la fuerza vital y la capacidad de las mujeres en una medida significativamente mayor que lo que les devuelven de sí mismos”* (Osborne, 2009: 45).

Desiraren banaketak duen garrantziari buruz ere aritzen da: sexua mutilentzat eta maitasuna neskentzat. Neskek ikasten dute sexu-grina senti dezaketela bakarrik maitasun-harreman batean, eta bestela “putatzat” hartuko dituztela. Honek arrisku larria suposa dezake, preserbatiboa ez erabiltzera bultzatzen dituelako neskak maiz, izan ere:

*Si ellas lo llevan consigo y lo proponen para una relación, se están comportando como chicas calculadoras que de antemano prevén la posibilidad de un sexo esporádico y no un sexo «improvisado», más acorde con los cánones del romanticismo que se supone se espera de ellas (Osborne, 2009: 47).*

Honi tiraka, Jónasdóttir-ek (1993) “libreki” ematen den maitasunean jartzen du fokoa. Maitasun-harreman libre hauetan, gizonak emakumeak esplotatzen dituzte, eta emakumeek esplotazio hori baimentzen edo jasaten dute “maite dutelako”, besteei atsegina ematen dietelako. Emakumeen diskurtsoa sistematikoki baliogabetzen da, bereziki harreman sexualetan, eta baliogabetze hori pentsaezina izango litzateke bi sexuek posizio bera izango balute norbanako bezala. Ezin dugu indarkeria ireki eta

zuzena sexu-egitura hegemonikoaren nahitazko mekanismotzat hartu. Emakumeen autoritatearen sortze eta berrespenaren gatatzaren aurrean gaude (Jónasdóttir, 1993).

Maitasun erromantikoa, eredu kultural bezala sozializazio prozesuan, emakumeen uko egite pertsonal bezala ulertzen da oraindik ere, gizonekiko dependentzia eta otzantasun jarrerak suspertzen dituen ematea bezala. Emakumeek ikasten dute bizitzaren zentzua gizonei atsegin ematean datzala: beren itxura fisikoa estereotipoekin bat etortzea, seduzitzeko gaitasuna edukitzea... Femitatearen ideal bilakatzea, hain zuzen ere. Hau zinez kaltegarria da harreman afektibo-sexualentzat, bestearen desirak asebetetzea bilakatzen delako helburu nagusia, “ni”-aren sakrifizioa berekin ekarri arren (Bartolomé, 2018).

Idea hauen kontra egiteko, erabateko paradigma aldaketa proposatzen du María Zamora-k (2018):

*Comenzar a vivir la sexualidad desde el amor, pero no desde ese amor negativo [...] “tenemos que trabajar mucho para deshacernos esta asociación entre amar y sufrir, amar y sacrificarse, amar y someterse, amar y renunciar” [...] Quererse bien a una misma es una cuestión política: es la primera rebelión feminista contra el patriarcado, que nos quiere en guerra contra nosotras mismas. Estar bien con una misma, conocerse bien, quererse bien y cuidarse mucho es, hoy en día, una revolución necesaria y urgente para acabar con la subordinación de las mujeres [...] Quererse bien a una misma es un acto transformador y revolucionario (Zamora, 2018: 23).*

Emakumea besteen mesederako existitzen denaren ideia honek emakumeen gorputzengan eragin zuzena dauka. Arcarons-en (2017) aburuz, emakumearen gorputza dominazio eta indarkeria espazio izan da historian zehar, territorio okupatua. Emakumeen emantzipazioa suertatzeko, sexualitatearen xede patriarkalak deuseztatu behar dira, izan ere:

*Pensadoras feministas consideran que la falta de autonomía y la dependencia vital de las mujeres se logra al expropiarles su cuerpo, y al cosificarlo para el placer y disfrute de otros, más allá de las mujeres mismas. Así, a lo largo de la historia la sexualidad femenina ha sido y sigue siendo una cuestión indisociable de la dominación masculina (Arcarons, 2017: 15).*

Emakumen gorputzen gaineko kontrola eta biolentziaren auzia, hezkuntza sexualaren arloan nahiko “apainduta” agertzen zaigu, baina errealitatea hurrengo da: *“la formación en cuestiones de sexualidad que se imparte en escuelas e institutos [...] está centrada principalmente en la reproducción, y refuerza un modelo sexual heteronormativo y coitocéntrico” (Arcarons, 2017: 15).*

Idea hau berresten du David Romera-k (2018) bere lekukotasunaren bitartez: genero-rolek plazer pertsonala baldintzatzen dute, ona eta txarra dena zehazten da ikuspuntu patriarkal, koitozentrista eta heteronormatibo batetik. *“Cualquier salida del molde no tiene porque conllevar una respuesta de rechazo directa, pero de primeras sí produce seguro una decepción en cuanto a lo que se espera de ti”* (Romera, 2018: 20).

Emakumeen hezkuntza afektibo-sexuala bigarren maila batean dago beti, ez dute ikasten beren plazerra lehentasuna denik eta sexuaz disfruta dezaketela nahi dutenean modu askean. Zamorak (2018) esaten duenez, Naomi Wolf-en ustez sexualitate femeninoari buruz daukagun informazioa zaharkituta dago, eta informazio hau ahalik eta askeen izateko gakoa da, inposaketa sozialei aurre egiteko tresnarik erabilgarriena. Emakumeak ez dira inoiz hezituak izan beren sexualitatearen jabe izateko:

*El modelo de sexualidad que tenemos es falocéntrica, vivimos bajo el patriarcado, es cultural, y esto hace que el deseo del hombre este en una posición muy superior al deseo de la mujer, que ni siquiera se cuestiona, el sexo como actividad no es vivido en muchos casos o no siempre como placentero* (Zamora, 2018: 23).

Sistema patriarkalak emakumearen gorputza kolonizatu du, eta bere bizitza kontrolatzeko mekanismo bezala erabili du modu anitzetan historian zehar. Emakumeen ahalduntze sexualak eskatzen du emakumeek haien gorputzen gaineko boterea eta kontrola edukitzea, ezagutzea, ulertzea eta bakoitzak berearekin egin nahi duena erabakitzeko eskubidea eta askatasuna izatea. Emakume heterosexualeen kasuan, berebizikoa da gizonen harreman sexualen eraldaketan parte hartzea, berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako erreferentzia-eredu alternatiboak sortzeko (Pérez, 2018).

Munduaren ikuskera binariotik abiatuta, heteronormatibitatea suposatzen duena, emakumeek bere rol sexuala objektu sexual bezala barneratzen dutela aditzera ematen du Irene Pérez-ek, gizonen subjektu desiratzailerik bezala barneratzen duten era berean. Gizonak botere patriarkalaren goreneko kokapena hartzeko hezitzen dira, baita eremu sexualean ere. Hortaz, patriarkatuak emakumea desira-objektua bezala irudikatzen du, plazerra adierazteko gai ez dena, eta bere buruarenganako desira ez duena, orduan: *“Cómo va a tratar una persona a alguien que no tiene deseo? La respuesta es desde el abuso y la violación”* (Pérez, 2018: 22).

Alegia, emakume heterosexual bat ahalduntze sexual hori lortzen duenean, gehienetan rol maskulino tradizionalak errepikatzen dituzten bikote sexuarekin topatzen da halaber, Pérez-en (2018) arabera:

*“Los hombres no saben cómo relacionarse con estas nuevas mujeres [...] los nuevos hombres son los hombres de siempre. Las masculinidades han cambiado a lo largo de la historia para seguir iguales: los cambios que han hecho son adaptativos pero no transformadores”. [...] la sexualidad en nuestra sociedad sigue teniendo modelos de referencia tradicionales que convergen junto con los discursos feministas de los nuevos hombres y las nuevas mujeres. Sin embargo, en la vida cotidiana los hombres del siglo XXI no han dejado de tener privilegios y siguen teniendo el poder a su alcance respecto a sus compañeras sexuales (Pérez, 2018: 23).*

Zamora eta Pérez-ek bat egiten dute maitasun eredu desberdin bat sortzeko beharraren ideian. Sexualitate aske bat garatzeko, eredu hegemonikoak gainditu behar ditugu, botere-harremanak errespetu-harreman bilaka daitezzen. Horetarako, gizon zein emakumeok gogoeta egin behar dugu patriarkatuak gure gorputzen gain ezartzen duen dominazioaren inguruan. Askatasunetik eraikitzen den maitasun eredu premiazkoa da, posesibitate eta beldurrik gabekoa, non sexua ez den hitzartutako trukea: *“El sexo es para comunicarse y disfrutar: no se concibe como una moneda de cambio ni una transacción [...] Es nuestra obligación empezar a considerarnos sujetos de deseo y luchar contra toda violencia que nos considera objeto”* (Zamora, 2018: 25).

## 2.3 Gaiaren inguruko ikerketak eta datu enpirikoak

### Nazioartean eta Espainia mailan

Fortún-ek (2014) adierazten duen moduan, indarkeria sexuala gutxi ikertutako fenomeno da, batez ere, biktima errealean kopurua kuantifikatzeko konplexutasuna dela medio. Honen inguruko datuak, nagusiki, salaketen edo ospitalen erregistroen bitartez eskuratzen dira. Alabaina, datu hauek balioespen partzialak dira gutxien salatzen den delituetakoa delako arrazoi desberdinenak direla medio: lotsa; beldurra; larritasunaz kontziente ez izatea; eskubide eta babes-sistemak ez ezagutzea; indarkeria sexualaren biktima batzuk ez jotzea hospitaletara laguntza eske, eta batzuk bere burua biktimatzat ez jotzea, bikotekidearen biktimek, esaterako (Fortún, 2014; de Miguel Luken, 2015; Emakunde, 2017). Izan ere, harreman interpersoneletan gauzatzen den indarkeria identifikatzea zaila da gehienetan, espazio pribatu batean garatzen delako, batik bat (Rivas, Lozano eta Gómez, 2003).

Indarkeria sexuala identifikatzea eta agerian jartzea zailtzen dute mitoek. Hauek erasotzaileei, biktimei eta eraso berei buruzko uste faltsuak, estereotipoak edo aurreiritziak dira. Gizon batek emakume bati sexu-erasoa egitea justifikatzeko

erabiltzen dira eta genero-estereotipoak ugaltzen dituzte. Emakumeek sexu-erasoa pairatzeko duten beldurra elikatzen dute, eta ematen dioten esanahia zein horren aurrean dituzten erreakzio eta erantzunak baldintzatzen dituzte. Biktimak isilarazten dituzte, inguruaren erantzunaren beldur direlako eta beren buruak erasoaren erantzule bezala ikustea eragiten dutelako (Fortún, 2014; Hernández et al., 2015). Hurrengoak dira imajinario kolektiboan dauden sinesmen faltsuetako batzuk (Fortún, 2014):

- Erasotzailearen inguruan:
  - Erasotzaile sexualak zoroak edo sexu-erreprimituak dira
  - Gizon batek ezin du bere burua kontrolatu berotzen denean
  - Erasotzaile gehienak helduak dira
  - Erasotzaile gehienak ezezagunak dira biktimentzat
  - Erasotzaile gehienek tratu txarrak edo indarkeria sexuala pairatu dute hartzaroan
  - Erasotzaile sexualak itxura eta jarrerengatik identifikatu daitezke
  - Erasotzaile sexual gehienek sexu-desira dela eta erasotzen dute
  
- Biktimaren ingurukoak:
  - Emakumeek erresistentzia egiten dio harreman sexualari. Ezezkoak ez du ñabardurarik
  - Askotan emakumeek salaketa faltsuak egiten dituzte mendekua hartzeko edo haurdunandiak justifikatzeko
  - Emakumeek erasoak probokatzen dituzte beren jarrerekin
  - Prostitutek ezin dituzte bortxaketak pairatu
  - Maila ekonomiko eta kultural baxuko emakumeek pairatzen dituzte erasoak
  - Erresistentzia indartsu batek bortxaketa galarazten du
  
- Erasoaren ingurukoak:
  - Sexu-delitu guztiak biolentoak dira
  - Eraso sexualak leku ilun eta bakartietan gertatzen dira
  - Eraso sexualak inguru marjinaletan gertatzen dira
  - Sexu-iraultzaren ondorioz eraso sexualak ugaritu dira
  - Ezkontza barruko bortxaketak ez dira delitu
  - Erraza da eraso sexual bat detektatzea

Errealitatea guztiz desberdina ozan ohi da. Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestaren arabera, Espainian sexu-erasotzaileen %97,5a gizonak dira. Bortxaketen kasuan, erasotzaile mota nagusia ezagunak edo lagunak dira



(%46,43), familiarren bat aita izan ezik %20a eta ezezagunak %18,57. Beste sexu-indarkeria modu batzuen kasuan, %44,02an erasotzailea ezaguna da, ezagun zein lagunak (%31,05) eta familiarrak (%12,97) batuz. Gainera, zenbatesten da beren bikotekide edo bikotekide ohiaren biolentzia nozitzen duten emakumeen % 48ak ez duela jo erregistroa ahalbidetzen duen lekuren batera, beraz, ez daude erregistratuta (de Miguel Luken, 2015).

Eraso sexualak aztertzean soilik bikote-testuingurua kontuan hartzen baldin bada ezezagunen erasoak alde batera utzita, zifrek gora egiten dute nabarmen. OMS-en (2002) arabera, emakumeen %6,2-46,7ak eraso sexuala pairatu du bere bikotearen partetik noizbait, eta %1,3-27ak azken urtean. Herrialdeen artean desberdintasun anitzak egon arren, tasak altuak dira guztietan, beraz, mundu osoko emakumeek pairatzen duten gaitza da (Echeburúa eta Redondo, 2010; OMS, 2002; hemen aipatuta: Fortún, 2014).

Fortún-ek (2014) aztertutako kasuen %31,2an erasotzailea ezezaguna zen, %19,5ean duela gutxiko ezaguna, %18,2an laguna, %10,4ean bikotekidea, %10,4ean lan-harremana zeukatena eta %5,2an familiako kide zen. Honek esan nahi du bikotimik erasotzailea ezagutzen zuela kasuen %63,7an, eta %28,6ean harreman afektibo-sexual esturen bat zeukatela, erasotzaileak bikotekide edo lagunak baitziren.

Ikerketa honen emaitzak indarkeria sexualaren inguruko mito batzuk deuseztatzeko baliagarriak dira. Izan ere, aditzera ematen dute erasotzailea gehienetan ezaguna izan zela eta lesio fisikoak kasu gutxitan jazo zirela. Gainera, lagineko elementu gehienek bigarren mailako eta unibertsitateko ikasketak zituzten (Fortún, 2014).

Bada, mitoen eta jasotzen diren datuen artean alde nabarmena dago, baita datu horien eta zifra errealen artean ere. Kuantifikatzen omen ez den indarkeria izan ohi da: harreman sexual behartuak bikote ezkondu edota maitasun-erlazioetan, eta xantai, mehatxu edo etengabeko eskarien ondorioz izandako harreman sexual ez desiratuak (Fortún, 2014). Bi azpimultzo hauek gure aztergai den indarkeria motaren parte dira.

Ildo horretan, 2015eko makroinkestak adierazten du bikotekide edo bikotekide ohiarengandik indarkeria sexuala sufritu duela noizbait Espainian bizi den 16 urte edo gorako emakumeen %8,1ak, halaber, 1.599.107 emakumek. Azken urte

horretan, %1,4k pairatu zuen indarkeria mota hori, hau da, 279.844 emakumek (de Miguel Luken, 2015; Emakunde, 2017).

Emakume aztertuen %6,4aren kasuan, bikotekideren batek harreman sexualak izatera behartu du nahi ez zuenean; %6,1ak harreman sexualak bere borondatearen aurka izan ditu, osterantzean bikotekideak egin zezakeenaren beldur zelako; %3,1ak adierazten du bikotekideren batek harreman sexualak izatera behartu nahi izan duela, lortu gabe, eutsiz edo min emanez, eta %3,4ak dio nahi ez zuen edo laidogarria iruditzen zitzaion praktikaren bat egitera behartu dutela. Bestalde, emakumeen %10,3-%10,5ak baieztatzen du desiratu gabeko harreman sexualak izan dituela bere bikotekide ohiren batekin; %6ak dio bere borondatearen aurkako praktikaren bat egitera behartu duela, eta %5,7ak dio harreman sexualak izatera behartzen saiatu dela lortu gabe (de Miguel Luken, 2015).

2015ean Espainian bizi ziren eta bikotekidea zuten 16 urte edo gorako emakumeen %1,8ak bikotekide horren partetik indarkeria sexuala jasan izan zuen noizbait, eta %1ak azken urtean. Datuen arabera, izandako bikotekide kopurua gero eta handiagoa izan, orduan eta sexu-indarkeria kasu gehiago daude. Izan ere, 4 bikotekide harreman edo gehiago izan duten emakumeen %16,8ak aitortzen du horietako baten batean indarkeria sexuala pairatu izana, eta bikotekide bakarra izan duten emakumeen %4,4k adierazten du hau. Bikotekidearen eraso sexualen bat pairatu duten emakumeen artean, %3,5ak adierazten du behin gertatu izana, beraz, gainerakoetan, behin baino gehiagotan jazo da (de Miguel Luken, 2015).

Ortega et al.-ek (2008) gazteen harremanetan jartzen dute arreta, eta emaitzek indarkeria sexualaren presentzia eta konplexutasuna islatzen dute, aldaerak baitituztu sexu eta harreman afektibo-sexual motaren arabera:

Aztertuen %66,6ak bere bikotekidearengandik indarkeria sexuala pairatu izana adierazten du: %40,3ak noizbehinka eta %25,3ak maiz gertatzen dela dio. Indarkeria sexuala ezarri duela aitortzen du %48 inguruk: noizbehinka %35ak, eta %13ak sarritan. Erasotzaileen eskalan mutilen kopurua handiagoa da, baina ez dago alde nabarmenik sexuaren arabera biktimizazioan (Ortega et al., 2008). Fernández eta Fuertes-ek (2005) bat egiten dute honekin. Beren ikerketan, %47,9ak aitortu zuen bikotekideari indarkeria sexuala ezarri izana, eta %51,7ak pairatu izana. Erasotzaileei dagokionez, mutil-kopurua handiagoa zen (%58,8 eta emakumeak %40,1), baina ez zegoen sexuen arteko desberdintasunik biktimizazioan (Fernández eta Fuertes, 2005). Lozano-renean (2008) ere, gizonek sexu-indarkeria ezartzen diete bikotekide

emakumeei, emakumeek bikotekide gizona baino gehiago. Alabaina, biktimizazioan gizonak emakumeek baino gehiago adierazten dute pairatu izana (Lozano, 2008). Rey-Anacona-n (2009), aztertuen %8,3ak iragarri zuen noizbait tratu-txar sexualak jaso izana bikote-harreman batean, eta kasu honetan ere gizonak hauen berri emateko joera handiagoa zeukaten emakumeek baino. Fuertes, Ramos, De la Orden, Del Campo eta Lázaro-ren (2005) ikerketan, gizon nerabeen %15,3ak aitortu zuen harreman sexualak izan zituela neska batekin honen borondatearen kontra, hertsadura mailaren bat erabiliz (Fuertes, Ramos eta Fernández-Fuertes, 2007).

Nazioarteko ikerketa gehienek, ordea, ondorioztatzen dute biktimak, orokorrean, emakumeak direla. Foshee et al.-en (1996; hemen aipatuta: Rivas et al., 2003), nerabe emakumeen %14,5ak eta nerabe gizonen %6,9ak adierazi zuen beren bikotekideen biktimak izan zirela. Hird-ek (2000; hemen aipatuta: Rivas et al., 2003) azaleratu zuen emakume ikasleen %17,9a behartua izan zela harreman sexualak izatera (penetrazioarekin edota gabe) beren bikotekideen partetik. Hernández et al.-en (2015), 630 ikasletatik, %51ak hertsadura sexuala ezarri edo pairatu zuela adierazi zuen. Ezarri zutenetik (%27,5), gizonak %71,1 ziren eta emakumeak %28,9. Pairatu zutenetik (%23,5), gizonak %45,3 ziren eta emakumeak %54,7. Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres-en (2003) ikerketan, agerian geratu zen indarkeria sexualaren biktima nagusiak emakumeak direla, gazteak batez ere. Mutil gazteek ez dute beren burua subjektu biolento bezala ikusten, eta are gutxiago biktima bezala. Neska gazteek subjektu biolento bezala ikusten dituzte mutilak, eta euren hezkuntza zein izatasunari atxikitzen diote hau. Neska zein mutilen iritziz, gizon batek "*poco hombre*" (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003: 48) izan behar du emakume baten biktima sexuala izateko, gizonen bereizgarria delako sexu-desira izatea beti.

Bestalde, Ortega et al.-en (2008) arabera, bikotekideen arteko sexu-biolentzia ohikoagoa da bikote-harreman serioetan. Hau izan daiteke, bikote-harremanak egonkortasuna eskuratu ahala, denbora gehiago igarotzen dutelako bikotekideek elkarrekin, eta ondorioz haien arteko gatazka gehiago edota dominazio-dinamikak agertzen dira. Catieli-k (2016) bat egiten du honekin: bikote-harreman bat gero eta iraunkorragoa izan, orduan eta zailagoa dela mugak ezartzea adostasuna segurutzat jotzen delako; hau da, bikotekideek jada ez dute barbarik egiten akordio batera heltzeko, ekintzak aurrera eramaten dira kontsultatu gabe. Alabaina, Harned-ekin (2001) egiten dute talka, ondorioztatu baitzuen eraso sexuala iraupen motzeko harremanetan suertatzeko aukera gehiago dagoela.

Ortega et al.-en (2008) emaitzek ere erakusten dute gazte ugariak bikoitza daukatela, hau da, erasotzaileak eta biktimak dira aldi berean. Honek bikotekideen arteko egiturazko dinamika biolento baten ezarpena ekar lezake, denboran irauteko

erraztasun handiagoa eskuratuz. Lozano-n (2008) ere, ohikoena da sexu-indarkeria elkarrenganako izatea.

Lozano-k (2008) adierazi bezala, harreman sexualak izatea bikotekidearen eskubide eta betebeharra dela uste dute askok oraindik. Biolentziari eta, zehazki, bikote-harremanetako sexu-indarkeriari buruz gazteek duten hezkuntza eza kontuan hartuta, arreta eskaini behar zaio. Izan ere, ikerketa gehienek baieztatzen dute egoera hau ohikoagoa dela bikotekide gazteen artean bikotekide helduen artean baino. Ondorioztatzen du indarkeria sexuala gazte eta nerabeen bikote-harremanen osagaia dela, eta emaitzek informazio interesgarria ematen dute:

Inkestaturen %20 inguruk onartzen du bikote-harremanetan indarkeria sexuala ezarri edo nozitu izana. Indarkeria sexuala ezartzeko taktika nagusia ahoz ekitea da, %17,8k aitortzen du erabiltzen duela. Katz, Carino eta Hilton-en (2002; hemen aipatuta: Rivas et al., 2003) arabera ere, bikotekideari hertsadura sexuala ezartzen dioten unibertsitate-ikasleen (%33) gehiengo (%25) sexu-harremanak izaten tematzen da, indarkeria fisikoa erabili gabe, bikotekideak nahi ez duenean. Saldívar et al.-ek (2008) dioten legez, posizio desberdinak direla eta, hertsadura ezartzeko taktikak desberdinak izan ohi dira sexuaren arabera. Biek taktika ez-zuzenak (xede sexuala ezkututzen dutenak) zuzenak baino gehiago erabili arren, emakume gazte heterosexualek gehien sufritzen dutena ahozko presioa dela diote. Bat egiten dute, hortaz, Smith, White eta Holland-en (2003) ikerketarekin, eta desadostasunean daude Stets eta Pirog-Good-enarekin (1989), hemen bikotekidearen borondatearen kontrako gerturatze sexualari ekitea baitzen gailentzen zen jokabidea. Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres-en (2003), pertsona batek bere borondatearen kontrako praktika bat egitea lortzeko taktiken artean aipatu zituzten indarkeria fisikoa, horren mehatxua, arrazoiaren baliogabetzea alkohol edo narkotikoen bidez, inposatzea, konbentzitzea eta sexu-bulkadaren sortzea edo probetxu ateratzea. Inposatzea harreman afektibo-sexualen abusuarekin lotu zuten: laguntasuna edo lotura familiarak, estutasunean ipintzea edo maitasun-froga eskatzea. Konbentzitzearen barne sartzen zuten xantaia, engainua, promesak... Lozano-ra (2008) bueltatuz, eustea edo indar fisikoa erabiltzeko mehatxua gutxien erabiltzen diren taktikak dira, %0,9 baino gutxiagoko ehunekoarekin. Catieli-k (2016), bere aldetik, taktiken inguruko emaitza interesgarriak azalera ditu:

Taktika nagusiek bikotekidea behartuta sentiaraztea eragiten duten presioa edo xantaia inplikatzen dute, hala nola, manipulatzeko egoera dramatiko baten edo "jada ez nauzu maite" bezalako adierazpenen bidez. Ukituei, gainean jartzeari edota musuei bestearen borondatearen kontra ekitea ere oso ohikoa da.

Batzuk estrategia sotilagoak erabiltzen dituzte bikotekidea konbentzitzeko, adibidez, jokabide gozo eta atseginaren plantak egitea, ondoren desagertuko dena. Bikotekidea leku bakartietara edo etxeetara eramatea inor ez dagoenean askotan

indarkeria suposa dezake. Izan ere, unibertsitarioak izatean, normalean gurasoen dependiente dira eta ez dute etxebizitza propioirik, ezta intimitatea lortzeko erraztasunik ere. Horregatik, leku hauetan bikotekideren batek nahi ez izan arren harreman sexualak izateko derrigorra senti dezake (Catieli, 2016).

Indarkeria sexual honen atzean dagoen iruditeria behatu nahian, zenbait ikerlarik genero-rolak daukaten garrantzia aztertu dute:

Benloch, Campos, Sánchez eta Bayot-en (2008) emaitzen arabera, maskulinitate eta feminitatearen eredu identitario hegemonikoek bizirik jarraitzen dute, krisian. Diskurtsoaren eta praktikaren artean aurkitutako aldeak dominazio maskulinoaren alderdi ezkutuen agerian uzten du, jada azaldu dugun dominazio sinbolikoa, alegia. Hau nabaria da neska nerabeek harreman afektibo-sexualen esparruan adierazten dituzten behar zein esperientzietan, eta mutil nerabeek genero-estereotipoen urratzearen aurrean erakusten duten errefusean. Emakumeen menderakuntza legitimatzen duten diskurtsoekin egiten dugu topo, harreman afektibo-sexualetan rol femenino eta maskulinoaren irautea suspertzen dutenak. Gazteek berdintasun formalaren diskurtso sozial hegemonikoa onartzen dute modu ez-kritikoan. Honek askotan genero-sistemaren efektuak ezkututzen ditu eta ekintza kolektiboa makaltzen du (Benloch et al., 2008).

Genero-rol trazionalen onarpena arrisku-faktore bat da. Estereotipo hauek bikote-harremanetako indarkeriaren aldeko pertzeptzioa suspertzen dute (Davis y Liddell, 2002; Wade y Brittan-Powell, 2001; hemen aipatuta: Lozano, 2008), eta zenbait ikerketek aditzera ematen dute genero-estereotipo zurrinak jarraitzen dituzten gizonek eraso sexualak egiteko probabilitate gehiago dituztela (Check y Malamuth, 1983; Koss, Leonard, Beazley y Oros, 1985; hemen aipatuta: Lozano, 2008).

Delpino, Eresta eta Rivas-en (2013), genero-rolak ezarritakoa jarraitzeko joera ikusten da. Honen adierazle dira bikotekidearen ezaugarrien balorazioan agertutako desberdintasun nabariak. Bikotekide batean gehien baloratzen dituzten ezaugarrien artean, itxura fisikoa aipatzeko orduan, mutilen ehunekoa %53,1-ko izan zen, eta neskena %26,2-koa. Bestetik, begirunea erakusteari emakumeek emandako garrantzia (%40,2) gizonek emandakoaren (%19,9) bikoitza izan zen.

Neskek eta mutilek bikote-harremanen inguruan dituzten itxaropenek ere genero-desberdintasunak islatzen dituzte, lotura afektiboen garapenean eragina izango dutenak eta erlazio asimetrikoak eraikitzeko oinarri direnak. Itxaropen hauetan identitate femeninoa maskulinoarekin aurkakotasunean agertzen da. Femeninoa pasibitate, ahultasun eta gutxiagotasunarekin lotzen da, mendekotasun afektibo eta besteen zaintza bezala materializatzen dena. Maskulinoa nagusitasunarekin lotzen da,

handikeria, lehiakortasuna, indarra eta biolentziarako alde aurretiko jarreraren bidez materializatzen dena. Modu honetan, sexuaren arabera aukera bereziak esleitzen dira, gizonak emakumearen gorputzaren eta emozioen kontrolaren gain erabakitzeke ahalmena eskuratuz. Itxaropen hauek, beraz, bikote-harremanen oinarrian daudenean, sexu-jardueran ondorioak izan ditzakete, baita genero-indarkeriari bidea eman ere (Delpino et al., 2013).

Ikerketaren emaitzek agerian uzten dituzte sexuen arteko talkak itxaropen eta aurreusteekeko, eta gazteen imajinarioko ideiek harreman heterosexualetan sor ditzaketen gatazken pista ematen digute:

*Al ser consultados [...] acerca de aquello que [...] esperan de una relación de pareja [...], un sector muy pequeño de chicas (5,6%) –en contraste con la percepción de ellos, casi cuatro veces mayor– señalaron que ellas centraban sus expectativas en el sexo y algo más de la cuarta de parte de ellas (27,3%) –más del doble que la percepción de ellos– aspiraban a tener respeto en sus relaciones [...]. Respecto a las expectativas de los varones [...], para algo más de dos terceras partes de nuestros entrevistados el sexo constituía aquello que ellos más esperaban de la relación de pareja, si bien la percepción de las chicas (75,5%) resulta algo mayor que la expectativa de los chicos (65,9%) (Delpino et al., 2013: 27-28).*

Ikerketaren eztabaida-taldeetan, gizonak jarrera aktiboa eta parte hartzailea hartu zuten. Honek sexualitatearen kontrola rol maskulinoaren esku dagoela adierazten du. Galdetegiak sexualitatearen rola daukaten garrantziari buruzko informazioa ere ematen digu: “Mutilei sexua emakumeei baino gehiago interesatzen zaie” baieztapenarekin bat egin zuten %70,4 neskek eta %65,1 mutilek. Era berean, “gaur egungo neskek aurreko garaietakoak baino liberalagoak dira” baieztapenarekin bat egin zuten elkarrizketatuen %90k, genero edo jatorriaren arabera desberdintasun nabarmenik gabe. Ehuneko honen oinarrian gizartearen estereotipo edo usteak daudela pentsa genezake, izan ere, elkarrizketatuek soilik beste batzuk kontatutakoaren bidez ezagutzen dituzte “aurreko garaietako emakumeak” (Delpino et al., 2013).

Elkarrizketatuen %68,3ak bat egin egin zuen hurrengo baieztapenarekin: “biolentzia dagoen bikote-harremanak daude gazteen artean”. Neskek bat etorri ziren (%78) mutilak baino gehiago (%57,5). Ikerlarien arabera, datu hauek biolentzia honen mekanismo ugaltzaileak adin oso gazteetatik agertzen direla ohartarazten dute, etorkizuneko iraupena ziurtatuz. Sexualitatearen arloan dagoen estereotipo tradizional jakinen gailentasunak eragina dauka gazteen bikote-harremanen garapenean, eta indarkeria-osagaiak txerta ditzakete (Delpino et al., 2013).

Ildo honetatik jarraitzen dute Saldívar et al.-ek (2008): arazoaren hautematea galarazten duten tradizio kulturek arautzen dituzte bikote-harremanak oraindik. Arau

hauek, boterea mantentzeko edo gatazkak konpontzeko indarkeria-jarrerak legitimatzen dituzte, eta maiz harreman heterosexualak nola garatu behar diren agintzen duten gidoi sexualak eratzen dituzte. Bikote-harreman heterosexualan hertsadura iraunarazteko eta barkatzeko erabiltzen dira, nola jokatu behar den zehazten dutelako: norik izan behar duen gerturatzeko inizatiba, bikotekide batek edo biek erabakitzen duten nolakoa izango den harremana... Emakumeak gizonen eskura dauden objektu sexualtzat jotzen dituen egitura patriarkalaren ondorioz, emakumeak hertsadura sexualaren biktima nagusiak dira.

Hernández et al.-en (2015) ikerketak informazioa ematen du estereotipo eta mitoek indarkeria sexuala ezarri edo pairatzeko esperientziarengan daukaten efektuari buruz, testuinguru erromantiko batean. Gizonek biolentzia sexualaren erantzukizuna edota errua biktimei egozten diete, emakumeek baino gehiago (Jenson eta Gutek, 1982; hemen aipatuta: Lozano, 2008; Henández et al., 2015). Gizonek bere burua gutxiagotan ikusten dute indarkeriaren erantzule gisa, bidezkoztat jotzen duten heinean (Lejeune y Follette, 1994; hemen aipatuta: Lozano, 2008). “Emakumeak bortxatzen dituzte oharkabetzen direlako, arriskuan jartzen direlako edo gizonengan desira sexuala probokatzen dutelako” bezalako adierazpenak justifikatzeko joera erakutsi zuten. Mezua da emakumeek beren jokabidearen ondorioz merezi duten zigorra jasotzen dutela (Henández et al., 2015). Rivas et al.-ek (2003) aurkitu zuten aztertutako gizon zein emakumeek emakumei egozten zietenela hauen biktimizazioaren errua. Honek ondorio larriak izan ditzake, izan ere, emakumeak uste duenean bera dela bikotekidearen indarkeriaren arrazoia, gertagarriagoa da barkatzea eta harremana iraunaraztea (Rivas et al., 2003).

Espanian egindako ikerketa batzuk emaitza esanguratsuak lortu dituzte hertsadura eta eraso sexualen inguruan, hala nola, neska unibertsitarioen %33,2ak aitortzen duela sexu-hertsadura moduren baten biktima izan dela ezagun baten partetik (Sipsma et al. 2000; hemen aipatuta: Hernández eta González, 2009). Hernández eta González-en (2009) arabera, praktika hauek bikotekideen artean oso zabalduta daude. Izan ere, bikotekidearen abusu sexualak nozitzen dituzten emakumeek beren burua indarkeria-biktimatzat jotzeko zailtasun gehiago dituztela diote, beste ikerlari batzuekin bat eginez (Rivas et al., 2003; Fortún, 2014; de Miguel Luken, 2015; Emakunde, 2017), eta azkenaldian indarkeria fisikoaren ukatze soziala ugaritu den arren, hertsadura sexuala sarritan onartzen dela oraindik (Hernández eta González, 2009).

Emakume eta gizonak ez dituzte jarrera koertzitiboak identifikatzen harreman afektibo-sexualetan eta maitasun edo arau sozialen diskurtso batekin estaltzen dituzte (Saldívar et al., 2008; Henández et al., 2015), batik bat, biolentzia hau tradizionalki arlo pribatura mugatuta egon delako (Rivas et al., 2003; Henández et al., 2015), baita

horren inguruko hezkuntza gabeziaren ondorioz ere. Biolentziaren justifikazio hau arau sozial izateak eragin dezake biktimek indarkeria-egoerak jasangarritzat hartzea eta harreman biolentoei eustea (Malik et al., 1997; hemen aipatuta: Lozano, 2008). Jarrera abusiboen naturaltasunaren ideia erauzi behar da sexu-harremanak negoziatzeko gaitasunak garatzen dituen genero ikuspegiko hezkuntza sexual baten bitartez (Henández et al., 2015). Izan ere, Delpino et al.-ek (2013) adierazi bezala, nerabezaroan kezka eta egonezina sortzen duen gai konplexua izan ohi da sexualitatea. Sexu-askatasuna eta informazioa eskuragarri egon arren, parte hartzaileen %70ak adierazi zuen neskak eta mutilak sexualitateari buruz hitz egiteko beldur direla. Honekin lotu genitzake gurasoek seme-alabei sexualitatearen zein osasun sexual eta ugaltzailearen inguruan ematen dizkieten aholkuak:

Mutilen %60,7ak eta nesken %35,5ak ez du jasotzen sexualitatean aritzea eragozte aldeko aholkurik. Gurasoek sexua ez izatea gomendatzen diete nesken %45,9ari eta mutilen %23,8ari. Honek erlazioa izan dezake harreman sexualetan hasteko arrazoiekin, desberdintasun aipagarri batzuk baitaude sexuaren arabera. Maiteminduta egotea nesken %64,1aren arrazoa da, eta mutilen %55,3arena. Dibertitzea eta disfrutatzea nesken %30,9arena eta mutilen %45,3arena. Era berean, ez hasteko arrazoietan aldeak ere badaude: pertsona egokia ez aurkitzea edo beldurra da arrazoa nesken %71,4arentzat eta mutilen %45,3arentzat. Bestalde, bikotekidearekin elkartzean preserbatiboa beti eramateko aholkuaren kasuan, aitek gehiago ematen diete mutilei (%16,3) neskei baino (%2,4). Aholku hau gurasoen partetik jasotzen ez zuten nesken ehunekoa (%41,1) mutilena (%23,5) baino handiagoa zen (Delpino et al., 2013).

Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres-en (2003) ikerketa hezkuntza eza honen adibide argia da. Gazteak aztertu ziren, eta haien artean eztabaida piztu zen alderdi desberdinen inguruan. Adibidez, zein egoeratan justifika daitekeen edota desiragarria den indarkeria sexuala: bortxatzaileek berdina senti dezaten, prostituta baldin bada, ezkondata badaude ez da biolentzia... Sexu-indarkeria zer den zehazteko ere zailtasunak izan zituzten. Lehenengo bortxaketarekin lotzen zuten, eta sakontzean beste biolentzia-moduekin erlazionatu zuten, batez ere emakumeek: beren borondatearen kontrako ukituak, gerturatzeak zein musuak; jazarpena; harreman sexualak izateko ekitea... Gizonek, emakumeen beste ekintza batzuk sexu-biolentzia bezala identifikatu zituzten: desleialtasuna; arropa erakargarria janzteak gizonak harrapatzeak; probokatzea gero beren burua biktimizatzeak eta salatzeak (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003).

Gizon biolentoak buru-gaixotasunen bat edo traumaren bat zutela adierazi zuten neska zein mutilek, heldugabeak eta gaiztoak zirela. Alabaina, itxuragatik gizon biolento hauek identifikatzea zaila dela esan zuten. Erasotzeko arrazoiaren artean,



hurrengoak proposatu ziren: alkohola, plazerra edo dibertsioa, mendekua, urduritasuna edo haserrea, arreta deitzea, besteen aurrean ondo geratzeko... Bestalde, kontsideratu zuten parekoen artean, heldu eta indar berdinekoen artean, ezin zela indarkeria jazo (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003).

Mutilek emakume batek “ez” ez esateko arrazoi bezala hurrengoak planteatu zituzten: konorterik gabe dagoelako, onuraren bat ateratzeko edo, gehienetan, harreman sexuala inplizituki onartzen duelako. Neskek, berriz, arrazoi anitz adierazi zituzten: beldur da, mehatxatuta sentitzen da, ez daki nola esan ezetz, ez daki ezetz esan dezakeela, egiteko konpromisoa sentitzen du, uste du ezetz esan arren ezin izango duela gelditu, segurtasun-gabezia, jasaten du hori irakatsi diotelako... Mutilek hasieran kontsideratu zuten emakumeek ezetz esan behar dutela, eta ez badute esaten beren ardura dela. Alabaina, elkarrizketa aurrera egin ahala emakumeen ezezkoaren inguruko argudio kontraesankorrak adierazi zituzten: ezetz esan arren konbentzitu behar zaie, ez zaio kasurik egin behar ezetzari, ezetza esateko moduaren arabera kasu egin behar zaio edo ez, nahi duen ala ez begi-bistan ikus daiteke... Polemika egon zen amore ematearen inguruan: neskak maite bazaitu, nahi ez duen arren onartzen du; mutilak maite bazaitu, ezetz esaten badiozu errespetatuko du (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003).

Batzuk ere baieztatu zuten, emakumeak hasieran nahi ez duenean gizonen gaitasun sexualak hori alda dezakeela, eta esperientzia sexual biolento hori atsegina bilakatu daitekeela. Honen atzean dauden ideia sinbolikoak argiak dira: batetik, sexu-botere maskulinoak indarkeria gertaera atsegin bilaka dezake; bestetik, biolentzia gizonen ezaugarri naturala dela uste den era berean, emakumeen ezaugarri naturala biolentziaren gozamina dela (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003).

Biktima erasoaren eragiletzat jotzea subjektu biolentoa errutik salbustea bilatzen du. Biktimei erantzukizuna esleitzen zaie kontra ez egiteagatik, probokatzeagatik, kexatzeagatik edo ez kexatzeagatik. Gizonak ezarritako biolentziaren legitimazioaren beste adierazle bat emakumearen ezezkoaren interpretazioa eta horren aurreko erantzunak dira, erabaki femeninoa zalantzan jartzen eta baliogabetzen baitute. Indarkeria sexuala ongiaren eta gaizkiaren arteko leku zalantzarik geratu zen, permisibitatearen muga lausoekin. Eztabaidaren atzean, balio ideologikoek biolentzia legitimatzen dute imajinario indibidual eta kolektiboan gizon heterosexualen onurarako (Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres, 2003).

Limurtzea elkarrekintza sexualaren hasierako ezinbesteko osagaia da. Alabaina, limurtzeak dakarren elkarrekiko adostasuna desagertzen denean eta helburua elkarrekintza desiratzen ez duen pertsona bat behartzea bilakatzen denean, hertsadura agertzen da. Harreman afektibo-sexualei ekiteko unean norbanakoek jakin beharko lukete zertan datzan elkarrekintza hori, baina gehiengo ez da kontziente eta

ez dago prest. Ondorioz, hertsadura sexualeko dinamiketan erortzen dira (Catieli, 2016).

## Egungo ikerketak eta datu enpirikoak EAE-n

Gure ikerketa objektua Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak direnez, Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan ikergaiaren inguruan dagoen egungo informazioa ezagutu nahi dugu lehenengo. Alabaina, nekez ikertuta dagoen auzia da, eta ezinezkoa izan da ikerketa edo datu espezifikoak aurkitzea. Aintzat har dezakegun bakarra, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak dira, sexu-biolentzia orokorra barne hartzen dutenak.

Emakunde-ren (2017) txostenak emakumearen aurkako biolentziaren berri ematen digu, sexualean gehiegi sakontzen ez duen arren. Hala ere gako batzuk ematen dizkigu. 2016ko erregistroen arabera, EAE-ko emakumeen aurkako indarkeria kasuen %74ean erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia izan zen, %20an familiako beste gizon bat eta %6an aurreko kategorietatik kanpoko indarkeria sexuala erregistratu zen. 2017ko lehen erdialdean %5,92 igo zen emakumeen aurkako biolentzia. Dena den, jada esan bezala, erregistroen eta errealitatearen artean alde handia dago.

EAE-n, *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna* (2012) txostenaren arabera, 16 urtetik gorako emakumeen %12,5ak emakumearen kontrako biolentzia moduren bat jasan du, eta horietatik %7,5ak (138.934) bikotekide edo bikotekide ohiaren partetik indarkeria sufritzen du. Txosten berean, inkestan %0,4k adierazi zuen noizbait azken urtean presio egin ziotela sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez zuela nahi edo ez zuela gogorik, %0,3k aitortu zuen maiz edo noizean behin gertatzen zitzaiola hau (Emakunde, 2017). Honek gure ikergaiarekin lotura estua dauka, izan ere, presioa indarkeria sexuala ezartzeko taktika ohikoa da ikusi dugunaren arabera. Ildo berean, txosten horretan bikotekideak edo bikotekide ohiak indarkeria ezarri izana adierazi zuten emakumeen %10ak aitortzen du indarkeria sexuala jasan izana, halaber, sexu-erasoak zein -abusuak, jazarpena etab. (Emakunde, 2017).

Emakunde-ren (2017) adierazle gakoaren atalean, gure interesekoak diren datu batzuk aurki ditzakegu. Biolentzia eraren bat jasan dutenak sailkatu dira erasotzailearekin duten harremanaren arabera. Ikus dezakegun legez, oro har, erasotzaile eta biktimen artean harreman afektibo-sexualen bat egotea gailentzen da goranzko joerarekin (Emakunde, 2017).

## 2.4 Hipotesiak

Aztertutakoa aintzat hartuta, hurrengo hipotesiak formulatu ditugu:

H1: Emakumeek gizonek baino gehiago adieraziko dute ikerketan indarkeria sexuala pairatu izana, eta gizonek ingurukoei indarkeria pairatu izana ez kontatzeko joera handiagoa izango dute.

H2: Taktikak eta praktikak desberdinak izango dira indarkeria ezartzen duenaren sexu/generoaren arabera.

H3: Emakumeen erreakzioak gizonek baino pasiboagoak izango dira.

H4: Pertsona batek beste bati indarkeria behin baino gehiagotan ezartzeko aukera gehiago dago bikote egonkorretan beste harreman motetan baino

H5: Indarkeria bi norabidekoa izateko aukera gehiago dago bikote egonkorretan beste harreman motetan baino.

H6: Emakumeek gizonek baino kontzientzia eta ezagutza handiagoa erakutsiko dute gaiaren inguruan.

## 3. METODOLOGIA

Gure unibertsoa EHU-ko ikasleak dira. Elementu guztiak ikertzea ezinezkoa den heinean, lagina aukeratzea berebizikoa da. Horretarako, **laginketa** prozesua eramango dugu aurrera.

EHU-n matrikulatuta dauden ikasleen kopurua ezagutu daiteke. Alde horretatik, Juaristi-k (2003) azaltzen duenaren arabera, laginketa probabilitikoa egin liteke. Gure kasuan, ordea, unibertsoa elementu guztiek ez dute izan laginean aukeratuak izateko probabilitate berdina, ez dugu EHU-ko ikasleen zerrendatik hautatu lagina. Beraz, laginketa ez probabilitikoa izan da.

Ilido honetan, laginketa ez probabilitikoen barnean, Juaristi-k (2003) azaldutako bi laginketa era erabili ditugu:

Lagina, EHU-ko ikasleen *whatsapp* talde askotara inkesta bidaltzen osatu dugu, eta nahi izan duenak egin du, beti ere alde aurretik ezarritako irizpide batzuk errespetatuz. Horrenbestez, alde batetik, kuota bitartez egindako laginketa izan da, elementuak zoriz aukeratu ditugulako baina alde aurretik zehaztutako berezitasun jakinen arabera (adin-tartea, harreman afektibo-sexual heterosexualik izan duten edota EHU-ko ikasleak diren). Bestetik, hasiera batean inkesta EHU-ko ikasle batzuei

bidali diegu, eta ikasle horiek ere beste EHU-ko taldeetan zabaldu dute. Batek EHU-ko online ikastaro batean ere eskegi zuen. Beraz, elur bolaren bitartez egindako laginketa ere bada, lagina osatzen duten elementu batzuek inkesta helarazi dietelako beste elementu potentzial batzuei.

Laginketa prozesu honen ondorioz lortu dugun **lagina** hurrengoa da: EHU-ko 78 ikasle (46 emakume eta 32 gizon), 18-30 adin bitartekoak.

Lagina EHU-ko ikasleek osatzea erabaki dugu, batetik, marko teorikoaren atalean EAE-n gaiaren inguruan dagoen informazio hutsune horren eraginez, eta bestetik, ikerketa egiteko baliabideak zein denbora mugatuak direnez, laginean elementu eskuragarriak aukeratzea premiazkoztat jo dugulako.

Emakume eta gizon inkestatuen kopuru orekatua lortzen saiatu gara, bi sexu/generoek errealitate berdina nola ulertzen eta bizitzen duten behatzeko, eta emaitzek marko teorikoan jorratutakoarekin alderatzeko. Hala ere, emakumeek erantzuteko gogo handiagoa erakutsi dute eta kopuruak %59-%41 geratu dira azkenean. Adin-tarteen ehunekoak oso desorekatuta dauden arren ez diogu garrantzirik emango, adina inkestatuak finkatutako adin-tarteren batekoak direla ziurtatzeko erabili baitugu soilik.

Gure aztergaia ikertzeko erabiliko dugun teknika **inkesta** izango da. Izan ere, gure xedea ez da kasu gutxi batzuetan izugarri sakontzea, baizik eta jokaera sozial eta kolektiboen inguruko azterketa egiteko adina datu erreal lortzea. Inkesta iruditu zaigu teknika egokiena, izan ere, "Informazio iturri aberatsa da" (Juaristi, 2003: 86) eta "Teknika oso egokia da, erraz zenbatu daitezkeen fenomenoak aztertzeko. Inkestaten bitartez gizartearen [...] jarrera eta balioak oso erraz ezagutu daitezke" (Juaristi, 2003: 86).

Dena den, kontuan hartu behar dugu datuak ez direla izango estatistikoki esanguratsuak. Izan ere, segidan azalduko ditugun arrazoiak direla medio gure lagina aztertzeko teknika kuantitatiboa erabiliko dugun arren, ikerketa honek alde kualitatiboa duela azpimarratu nahi dugu. Honek esan nahi du ez garela mugatuko inkestan jasotzen ditugun datuak islatzera. Emaitzen eta marko teorikoan aditzera emandako teoria zein literaturaren arteko loturak ezartzea ezinbestekotzat jotzen dugu ondorioak osatzeko, batak bestetik edaten baitu, eta alderantziz.

Juaristi-k (2003) azaltzen duen legez, inkestak desabantailak ditu, baina gure kasuan desabantaila horietako batzuk abantaila bilakatzen dira. Hau da, gure ikergaia deserosoa eta modu irekian azaltzeko zaila da. Horregatik egokiagoa iruditzen zaigu inkesta idatzi bat proposatzea, non inkestatua erantzuteko denbora, anonimotasuna eta askatasuna daukan: *Whatsapp* bidezko inkesta. Egia da teknika kualitatiboen xehetasunak galtzen direla, baina pertsona kopuru handiago baten informazioa biltzeko aukera daukagu, eta inkestatuek gehitutako oharrak ere aintzat hartuko ditugu. Gainera, jasotako emaitzak marko teorikoan landutako edukiarekin lotu eta sakontasun batera helduko garelakoan gaude. Era berean, erantzun errealagoak lor

ditzakegu erantzunak baldintzatuta egoteko arriskua murrizten delako: anonimotasunak zein denborak presioa baretzen eta politikoki zuzena izateko joera urritzen dute, ez dagoelako besteen iritziaz arduratu beharrik. Bestalde, ulertzeko zailtasunak eragozteko, sarrera bat prestatu dugu kontzeptu nagusien azalpenarekin, eta inkesta zabaldu baino lehen talde txiki batean pretesta egingo dugu, sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Gai honen inguruan egindako ikerketa gehienek, marko teorikoan ikusi dugun bezala, teknika hau erabili izanak ere gure iritzia babesten du. Are gehiago, gure inkesta osatzeko, Lozano-ren (2008) ikerketa abiapuntu bezala izan dugu atal batzuetan, gure edukia desberdina izan arren. Gure inkesta sei ataletan antolatuta dago, helburu eta hipotesien arabera. Hasieran inkesta betetzeko argibideak daude, Lozano-tik (2008) maileguz hartutako ideia dena. Gurera ekarri dugu galdera batzuen norabide bikoitza ere, erasotzaile zein biktimen erantzunak jasotzeko asmoz. Ezarritako taktika, estrategia eta praktika batzuek ere ikerketa horretan eta Catieli-renean (2016) dute oinarri.

Hipotesietan **aldagai** desberdinen arteko loturak ezarri ditugu, eta gure inkesta egituraturako dutenak izango dira. Honela sailkatu ditugu:

#### ALDAGAI ASKEAK:

- Sexu/generoa: emakumeak, gizonak, beste bat
- Harreman afektibo-sexual mota: heterosexualak:
  - Bikotekide egonkorra
  - Zurekin harreman sexualak izaten dituen laguna/ezaguna (behin baino gehiagotan)
  - Harreman sexual puntuala (soilik behin, ezezagunekin, ezagunekin, lagunekin...)
  - Zurekin harreman sexualak izaten EZ dituen laguna/ezaguna (ez dituzue INOIZ izan)

#### MENPEKO ALDAGAIK:


- Praktikak
- Taktikak
- Erreakzioak/jarrerak
- Maiztasunak
- Norabidea
- Kontzientzia
- Ezagutza

## 4. ANALISIA

Esan bezala, inkesta da erabili dugun teknika. EHU-ko 78 ikasleri egin diegu: 46 emakume eta 32 gizon, 18-30 adin bitartekoak. Jarraian, jasotako datu esanguratsuenen analisiari ekingo diogu.

Pairatutako eta ezarritako sexu-indarkeriari buruz galdetu diegu galdetegiaren hasieran eta aurrerago, eta aldaketak behatzen ditugu erantzunetan:


### 3. Grafikoa: EMAKUMEEK PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.



Iturria: norberak egina.

Emakumeek, osotara, 35 aldiz adierazi dute sexu-indarkeria pairatu izana. Hauen barnean, sexu-harreman puntualen eta bikote egonkorren markoa dira nagusiak, galderen arteko aldaera nabariarekin, kopuruak gutxi gorabehera bikoizten baitira: bakoitza 13 kasutaraino (%37,1) igotzen da bigarren galderan. Harreman sexualak izaten EZ dituzten lagun/ezagunen arteko indarkeriaren markoan ere, kopurua bikoiztu da: 3 kasutik (%8,5) 6era (%17,1) igaro da. Harreman sexualak izaten dituzten lagun/ezagunen arteko indarkeriaren markoan, ez da egon aldaerarik: 3 kasutan (%8,5) adierazten dute pairatu izana (3. Grafikoa).


**5. Grafikoa: GIZONEK PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.

Gizonek, osotara, 17 aldiz adierazi dute sexu-indarkeria pairatu izana. Harreman mota guztietan galderen arteko aldaera dago, baina datu esanguratsuenak harreman sexual puntualen eremukoak dira, hasieran ez baitute adierazten pairatu izana, eta ondoren 6 kasutan (%35,3a) aipatzen dute. Harreman sexualak izaten dituzten lagun/ezagunen arteko indarkeriaren markoan, hasieran kasu bakarrean (%5,9) adierazten dute pairatu izana, eta gero 4tan (%23,5).

**6. Grafikoa: GIZONEK EZARRITAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.


Bestalde, gizonek 16 kasutan adierazi dute sexu-indarkeria ezarri izana. Kopuru adierazgarrienak bikote egonkorren arlokoak dira: hasieran 3 kasutan (%18,8) adierazten dute ezarri izana, eta ondoren 12tan (%75). Sexu-harremanak izaten dituzten lagun/ezagunen arteko indarkeriaren markoan, hasieran kasu bakarrean (%6,25) adierazten dute ezarri izana, eta 4 kasutara (%25) igotzen da kopurua ondoren.

Laburbilduz, azken galderaren erantzunak kontuan hartuz, (fidagarriagoztat jotzen baititugu), alde batetik, 28 emakumek (%60,9) adierazi dute indarkeria pairatu izana harreman afektibo-sexual heterosexualen batean, 35 kasutan. Gizonei dagokionez, 12k (%37,5) adierazi dute, 17 kasutan. Emakume gehiagok adierazi dute pairatu izana, baita kasu gehiagotan ere.

Bestetik, 3 emakumek (%6,5) adierazi dute sexu-indarkeria ezarri izana, 5 kasutan, datu adierazgarririk gabe. Gizonen kasuan, 15ek (%46,9) adierazi dute hau, 16 kasutan. Gizon gehiagok adierazi dute, beraz, ezarri izana.

Indarkeriaren norabideari dagokionez, 8. grafikoan harreman motaren arabera ikusten ditugu:

#### 8. Grafikoa: ALDEBIKOTASUNA HARREMAN MOTAREN ARABERA EHUNEKOTAN.



Iturria: norberak egina.


Aldebikotasun ehuneko handiena sexu-harremanak izaten dituzten lagun/ezagunen arteko indarkeria-kasuetan (8tik 3tan %37,5) aurkitzen dugu, eta



bigarren maila batean bikotekideen arteko indarkeria-kasuetan (23tik 5 %21,7). Harreman sexual puntaletako indarkeria-kasuetan, 16tik 2 (%12,5) dira aldebikoak.

Sexu-indarkeriaren maiztasunari dagokionez, aldeak daude sexuaren arabera, 9. Grafikoan behatzen den bezala. Jasotako erantzunen artetik, emakumeen gehiengoak (25etik 12 %48) adierazten du pertsona berarekin behin baino gehiagotan pairatu duela sexu-indarkeria, eta gizon batek ere ez du hau adierazi. Hauen kasuan, gehienek pertsona berarekin soilik behin pairatu dute (9tik 7 %77,8). Harreman motaren arabera desberdintasunak daude maiztasunetan:

**10. grafikoa: BIKOTEKIDE EGONKOR BATEN MARKOAN PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

10. grafikoan ikusten denez, bikote egonkorren markoan sexu-indarkeria sufritu duten emakumeen gehiengoak aitortzen du pertsona berarekin behin baino gehiagotan pairatu izana (%81,8), eta gizonen %100ak dio pertsona berarekin soilik behin pairatu duela.

11. grafikoan ikusten denez, beraiekin harreman sexualak izaten dituzten lagun/ezagunen markoan, emakumeen gehiengoak dio pertsona desberdinek ezarri diotela behin baino gehiagotan (%66,7), eta gizonen gehiengoari pertsona batekin soilik behin gertatu zaio (%75).

Harreman sexual puntualen markoan aniztasun handiagoa dagoen arren, 12. Grafikoan ikusten dugu emakumeen artean berriro gailentzen dela pertsona desberdinekin behin baino gehiagotan pairatu izana (%40) eta gizonen artean pertsona berarekin soilik behin (%50).

**13. grafikoa: HARREMAN SEXUALAK IZATEN EZ DITUZTEN LAGUN/EZAGUNEN MARKOAN PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

Maiztasunekin bukatzeko, harreman sexualak izaten EZ dituzten laguna/ezagunen markoan indarkeria sexuala sufritu duten emakume gehienek berriz ere aitortzen dute pertsona desberdinekin behin baino gehiagotan gertatu zaiela (%66,7) eta gizonen %100ak dio pertsona desberdinekin behin baino gehiagotan gertatu zaiola.

Praktikekin hasiko gara orain. Emakumeei galdetzean dibertsitate handia aurkitzen dugu, 1. diagraman islatzen dena:

**1. diagrama: EMAKUMEEK PAIRATUTAKO INDARKERIA SEXUALA: PRAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

Guztira, 66 aldiz aipatu dute praktikaren bat. Ia guztiak aipatu dira behintzat behin, “objektu/elikagaiak erabiltzea”, “begiak estaltzea” eta “argazkiak edo grabaketak egitea” izan ezik. Aipatu diren praktiken artean, aho-sexua, penetrazio anala eta penetrazio baginala gailentzen dira, 11 aldiz (%16,7) bakoitza. Bigarren maila batean aipatu dira “preserbatiboa ez erabiltzea” 8 aldiz (%12,12) eta “ukitu motaren bat” 7 aldiz (%10,6). Ondoren “masturbazioa” eta “sexu-harremanak izatea leku publikoetan edo beste pertsona batzuekin begira” agertzen dira, 5 aldiz (%7,6) bakoitza.

Gizonen kasuan, 2. Diagrama, 10 aldiz aipatu dute baten bat. Gehiengoa ez da behin ere agertu, beraz, ez dugu hainbeste aniztasunik. Aipatu diren praktiken artean, aho-sexua (4 aldiz; %40) eta “preserbatiboa ez erabiltzea” (2 aldiz; %20) gailentzen dira.

Inkestatuak ezarritako indarkeriari egiten diote erreferentzia 3. Eta 4. diagramek. Emakumeen kasuan, erantzun oso mugatuak ditugu: emakume bakar batek praktika bakar bat aipatu du, “penetrazio baginala”. Gizonen kasuan, 51 aldiz aipatu da praktikaren bat, eta gehienak behintzat behin aipatu direla ikusten dugu, baina nagusiak “preserbatiboa ez erabiltzea” (12 aldiz; %23,5), “penetrazioa anala” (11 aldiz; %21,6) eta “aho-sexua” (10 aldiz; %19,6) dira:


**4. diagrama: GIZONEK EZARRITAKO INDARKERIA SEXUALA: PRAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.

Indarkeria hau ezartzeko erabilitako taktikei ekingo diegu orain. Bestiak erabilitako taktikei dagokionez, emakumeek 98 aldiz aipatu dute baten bat. Mehatxuak izan ezik, beste guztiak agertu dira behintzat behin, 5. Diagraman ikusten dugunez:

5. diagrama: EMAKUMEEK PAIRATUTAKO INDARKERIA SEXUALA: TAKTIKAK EHUNEKOTAN.



Iturria: norberak egina.

“Ekitea, tematzea” (20 alditan, %20,4) bereziki gailentzen da. Jarraian, “Zu estimulatzen edo berotzen saiatzea” (12tan, %12,24) eta “Alkohola edo beste substantzia batzuk” (10tan, %10,2) ditugu. Ondoren, “Bere burua biktimizatzea” (7tan, %7,14), “Jokabide maitekorren plantak egitea” (7tan, %7,14), “Gerturatzeko aitzakiak bilatzea” (6tan, %6,12) eta “Inguratu/onartzeko derrigorra sentituko duzun leku batera eramatea” (6tan, %6,12) agertzen zaizkigu.

Gizonen kasuan, 6. Diagraman ikusten dugu besteak erabilitako taktikak 38 aldiz aipatu direla, eta “Ekitea, tematzea” gailentzen dela (11 aldiz, %28,9). Ondoren, “Zu estimulatzen edo berotzen saiatzea” (7tan, %18,4) dago, eta hurrengo maila batean “Manipulazioa” (4tan, %10,5).

Bestalde, 7. Diagraman aditzera ematen da indarkeria ezartzeko emakume bakar batek erabili duen taktika bakar bat aipatzen duela: “Estimulatzen edo berotzen saiatzea”. Gizonen kasuan, taktikak ugariagoak dira: 8. Diagraman ikus dezakegun moduan, 42 aldiz aipatu da baten bat, eta “Ekitea, tematzea” (13tan, %31) zein “Estimulatzen edo berotzen saiatzea” (9tan, %21,43) gailentzen dira.

Taktiken atal honetan inkestatuek gehitutako oharrak aipatzeko modukoak dira. Emakume batzuk beren borondatearen kontrako taktikak sakontasun gehiagorekin azaldu dituzte:


- *“Me dijo que no se le iba a pasar el empalme en toda la noche: "joe, ahora voy a estar empalmado toda la noche".”*
- *“Me dijo que no iba a cambiar nada en nuestra amistad por tener relaciones sexuales, que solo era para pasar un buen rato. Me llevó a una casa suya que no había nadie. Cambié de opinión y me dijo que para qué le había hecho venir hasta aquí que era una "caliente pollas", que le había hecho de perder el tiempo cuando podría haberse ligado a otra que sí hubiese querido "follar". “*

Gizon batek ere gehiago zehazten du, indarkeria ezartzeko erabilitako taktikei erreferentzia eginez kasu honetan: *“En su momento no era consciente de lo que le hacía y ella tampoco, cuando la relación terminó ella empezó a ver lo que había vivido, lo habló conmigo y ahora con la perspectiva de los años veo que utilicé todas estas tácticas a lo largo de la relación, sin ser consciente de la gravedad de lo que hacía”*.

Erreakzio, jarrera eta jokatzeko moduek ere hainbat bestelakotasun dituzte sexuaren arabera.

Agerikoa da emakumeek gizonek baino kasu gehiagotan sexu-harremanak hasi eta momenturen batean gelditu nahi izaten dutela (38 alditan emakumeek, 18tan gizonek) (15. Grafikoa). Horren aurrean, gizonek baino bikoitzetan (proportzioan, gizonek kasuen %14ean eta emakumeek %28an) ez dute hitzez adierazten baina jarrera pasiboa hartzen dute, gizonek baino gehiagotan egiten dituzte nahi dutenaren plantak (11tan emakumeek, 4tan gizonek); eta gizonek gehiagotan esaten dute ez dutela jarraitu nahi (proportzioan, emakumeek kasuen %52,6tan eta gizonek %71,4tan) (9. Eta 10. Diagramak).

**16. grafikoa: EZETZ ESAN ETA HALA ERE BESTEAK JARRAITU DU? EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.

Era berean, argi geratzen da emakumearen borondatea gizonena baino askoz gutxiago errespetatzen dela: emakumeen hitzezko ezezkoa 23 aldiz baliogabetu dute (5 aldiz gizonezkoena) (16. Grafikoa) eta jarrerarekin erakutsitako gogo eza 18 aldiz (5 aldiz gizonezkoena) (15. Eta 16. Diagramak).




**11. diagrama: GELDITU NAHI IZANAREN AURREAN BESTEAK (GIZONAK) IZAN DITUEN ERREAKZIOAK EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.

**13. diagrama: JOAKERAK ETA SUERTATUTAKO EGOERAK EZETZ ESAN ETA BESTEAK JARRAITU DUENEAN: EMAKUMEEK ADIERAZITAKOA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

Baliogabetze honi tiraka, 13. diagraman ikusten dugu emakumeek ezezkoa emandako ia kasuen erdian (35etik 16tan) azkenean sexu-harremana jazo zela modu batean ala bestean, nagusia gelditzen ez saiatzea eta jarrera pasiboa hartzea izanda (7 kasutan). Azpimarragarria da emakumeek 2 kasutan aipatu izana gelditzen saiatu zirela baina indar bidez menderatu zituztela. Izan ere, datuek argi uzten dute sexu-harremanetan batek jarraitu edo hasi nahi ez duenean, gizonak emakumeek baino erreakzio bortitzagoak eta "inbaditzaileagoak" dituztela, baita beren nahigabea erakusteko joera handiagoa ere daukatela (11. Eta 13. Diagramak).

Aipatzekoa da, gizon batzuek emakumeek gelditu eta erreakzio desatseginen bat izan dutela aipatu arren (28tik 8tan, %28,6a), gutxik (28 kasutik 3tan, %10,7a) adierazi dutela deseroso, barregarri edota errudun sentitu direnik. Emakume gehiagok adierazi dute hori (75 kasutik 11tan, %14,7a). Nahiko deigarria ere bada gizonak ez aipatzea behin ere emakumea gelditu ez izana, eta emakumeek 75 kasutik 13tan (%14,7). Bestalde, datuen arabera, gizonak askotan tarte bat jarraitzen saiatu dira geditu baino lehen (57tik 14tan), emakumeek gutxiagotan (28tik 5tan). Ikusten dugu, bada, besteren erreakzioei dagokionez, emakumeek gizonak baino askoz kasu gehiagoren berri eman dutela, gainerako atalen ildo berean (78kasu emakumeek; 28 gizonak) (11. Eta 12. Diagramak).

Sexuaren araberako desberdintasun nabariak daude sexu-indarkeriari emandako trataeran ere. Emakumeek, aditzera emandako ia kasuen erdian (27tik 13), ezartzailearekin auziaren inguruan hitz egin dute, eta gizonek kasuen %23an (13tik 3) (17.diagrama). Emakumeek gertatutakoa norbaiti noizbait kontatzeko joera argia daukate, soilik 2 kasutan (%7,4) ez dute kontatu. Gizonek guztiz kontrako joera daukate, 10etan (%77) ez baitute kontatu:

**21. diagrama: ZER EGIN DUZU? GIZONEN KASUAK EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.


Ez kontatzeko edo kontatzea kostatzeko arrazoietan datu interesgarriak ditugu. Gizonen 18 erantzun ditugu, eta gehiengoak adierazten du arrazoi moduan garrantzi gehiegirik eman ez izana (9tan, %50); eta bigarren maila batean lotsa (4tan %22,2); edo gertatzen zenarekiko kontzientzia eza (3tan, %16,7). Emakumeek, ordea, 40 erantzun eman dituzte, eta gehiengoak adierazten du arrazoi nagusiak kontzientzia eza (11tan, %27,5), pertsona hori babestea/kalte ez egitea eta errudun sentitzea (6tan bakoitza, %15) dira; garrantzi gehiegirik ez ematea, lotsa eta beldurra ere arrazoi moduan agertu dira (5etan bakoitza, %12,5). Beraz, gizonen kasuan esleitutako garrantzi eza da ez kontatzera bultzatzen dituen nagusiki, eta emakumeen kasuan kontziente izatea kostatzea eta ardura euren gain hartzearekin erlazioatutako arrazoiak (kalte ez egitea, errudun sentitzea). Bestade, gizon zein emakumeen kasuan, batek ere ez du salatu (17., 18., 19., 20., 21., 22. Diagramak).

Erreakzio eta jokaeren atalean ere, zenbait emakumek gehitutako oharrak aipatzekoak dira:

- *“No por su actitud pero sí que me he sentido así [deseroso, barregarri edota errudun], sin que hubiera una razón concreta” (honek “gelditu da eta bere jarrerak EZ zaitu deseroso, barregarri edota errudun sentiarazi” adierazi du)*
- *“Como siempre, pensaba que la que tenía el problema era yo y no él”*
- *“Y con ayuda de unas amigas le echamos de casa”*
- *“He llamado a la policía”*
- *“Lo conté desde el principio para que me ayudaran a echarlo. Ha pasado tiempo ya pero ahora soy más consciente de lo que me podía haber ocurrido”*
- *“Somos del mismo pueblo y de la cuadrilla. Hemos pasado toda la vida juntos. No me veía con fuerzas para que nadie se enterase y, que además, no me lo creyesen”*
- *“Era pequeña, tenía 15 años” (ez kontatzeko arrazoia)*


Bukatzeko, 15. eta 16. grafikoetan ikusten dugun legez, gizonak emakumeek baino ezagutza handiagoa adierazten dute beren inguruko sexu-indarkeriaren gainean. Bestalde, emakume zein gizonen gehiengoak adierazi du nagusiki emakumeak direla biktimak eta gizonak ezartzaileak. Hala ere, ezartzaileei buruzko ezagutza eza gailendu da.

### 15. grafikoa: GIZONEK DUTEN EZAGUTZA BEREN INGURUKO INDARKERIA SEXUAL HONI BURUZ EHUNEKOTAN.



Iturria: norberak egina.

**17. grafikoa: EMAKUMEEK DUTEN EZAGUTZA BEREN INGURUKO INDARKERIA SEXUAL HONI BURUZ EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.

Aipagarria ere bada indarkeria EZ pairatu izana adierazten dutenak, galdera honetan ezagutza eza gehiago erakusten dutela, oro har. Hasieran indarkeria pairatu izana adierazten ez duten baina aurrerago baietz aitortzen dutenen kasua ere berdintsua da.

## 5. ONDORIOAK

Lan honen aztergai EHU-ko gazteriaren harreman afektibo-sexual heterosexualetan jazotzen den sexu-indarkeria izan da. Berretsi nahi dugu datuak ez direla estatistikoki esaguratsuak, analisiak metodologia kuantitatiboa oinarri duen arren. Alabaina, ikerketan alde kualitatiboak duen garrantziak gure helburuak betetzea, hipotesiak egiaztatzea (edo ezeztatzea) eta ondorio interesgarrietara heltzea ahalbidetzen du.

Sexu/generoen arteko desberdintasunak ardatz izan dituen ikerketa izan da hau. Sexu-biolentzia hau pairatzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak erkatzean, ikusi dugu emakumeek gizonen baino gehiago adierazi dutela pairatu izana, eta gizonen gehiago adierazi dute ezarri izana. Bestalde, gizonen ingurukoei indarkeria pairatu izana ez kontatzeko joera handiagoa erakutsi dute. Aurrerago gehiago sakonduko dugu kontu hauetan, baina momentuz, **lehenengo hipotesia baieztatu dugula** esan dezakegu.

Ikertutako indarkeria sexuala osatzen duten taktika zein praktikek ere berebiziko garrantzia izan dute gure azterketan.

Emakumeek beren borondatearen kontra egin dituzten praktika nagusi bezala “aho-sexua”, “penetrazio anala”, “penetrazio baginala”, “preserbatiboa ez erabiltzea” eta “ukitu motaren bat” aipatu dituzte. Honek, hein handi batean, bat egiten du gizonen aitortzekin, inposatu edo inposatzen saiatu diren praktika nagusi bezala “preserbatiboa ez erabiltzea”, “penetrazioa anala” eta “aho-sexua” aipatu dituzte. Bestalde, gizonen beren borondatearen kontra burutu dituzten praktika nagusitzat “aho-sexua” eta “preserbatiboa ez erabiltzea” jo dituzte. Emakume bakar batek inposatu duten praktika bakar bezala “penetrazio baginala” aipatu dute. Sexu/generoen arteko talka nagusia penetrazio baginalean daukagu. Nesken kasuan, beren borondatearen kontra egindako praktiketan, gehien aipatu denetarikoa da, baina gizonen ez dute uste gehien inposatzen dutenatarikoa denik. Honek zerikusia izan dezake Arcarons (2017) eta Romera-k (2018) azaldutako hezkuntza sexual koitozentrista eta heteronormatiboarekin. Balio heteropatriarkalek zehazten dute sexualitatearen arloan egokia dena eta plazerra genero-rolen arabera banatzen dute. Ondorioz, gerta daiteke emakumeek penetrazio baginala esperientzia desatsegin eta biolento bezala bizitzea maiz, baina gizonen hori ez sumatzea, batetik, sexu-harremanen oinarri eta praktika egoki gisa barneratu dutelako, eta bestetik, ez diotelako garrantzirik ematen emakumearen plazerrari.

Ikusten dugu emakumeek beren borondatearen kontrako praktiken berri gizonen baino gehiagotan ematen dutela (66-10), eta gizonen emakumeek baino gehiagotan besteari inposatutako praktiken berri ematen dute (1-55). Esan dezakegu, funtsean, praktika jakin batzuk (“aho-sexua”, “penetrazio anala”, “penetrazio baginala”, “preserbatiboa ez erabiltzea”) direla nagusiak harreman afektibo-sexualetako sexu-indarkerian, eta faloa protagonista dela. Hau sexualitate-eredu

falozentrismaren (Zamora, 2018) eta genital maskulinoen nagusitasun ikasiaren (Rubin, 1986) adierazle da. Sexu/generoen araberako desberdintasun nabaria geratzen da agerian: gizonak, praktika nagusi horietako batzuk beren borondatearen kontra gutxi batzuetan egin dituztela aitortzen dute, baina emakumeek aditzera ematen dute praktika nagusi guztiak gehiagotan, eta gainontzeko gehienak ere noizbait, beren borondatearen kontra egin dituztela (gizon ezartzaileekin ere bat etorriz).

Taktiken kasuan, emakumeek bere aurka erabili dituzten taktika nagusi bezala identifikatzen dituzte “Ekitea, tematzea”, “Zu estimulatzen edo berotzen saiatzea”, “Alkohola edo beste substantzia batzuk”, “Bere burua biktimizatzea” eta “Jokabide maitekorren plantak egitea”. Gainontzeko ia guztiak behintzat behin aipatu dituzte, mehatxuak izan ezik. Gizonak bestearen aurka erabilitako taktika nagusi bezala aipatu dituzte “Ekitea, tematzea” eta “Estimulatzen edo berotzen saiatzea”. Gizonak bere aurka erabili dituzten taktika nagusizat jo dituzte “Ekitea, tematzea” eta “Zu estimulatzen edo berotzen saiatzea”. Emakumeek bestearen aurka erabilitako taktika bakarra aipatu dute: “Estimulatzen edo berotzen saiatzea”.

Ikusten dugu, taktiken kasuan ere, emakumeek beren aurka erabili dituzten taktiken berri gizonak baino gehiagotan ematen dutela (98-38), eta gizonak emakumeek baino gehiagotan bestearen kontra erabilitako taktiken berri ematen dute (1-42). Praktikekin gertatzen den bezala, taktika batzuk (“Ekitea, tematzea”, “Zu estimulatzen edo berotzen saiatzea”, “Alkohola edo beste substantzia batzuk”, “Bere burua biktimizatzea”, “Jokabide maitekorren plantak egitea”) gailentzen dira harreman afektibo-sexualetako sexu-indarkerian. Eta oraingoan ere, gizonen kontra erabili dituzte taktika nagusi horietako batzuk, baina emakumeen kontra guztiak eta gehiagotan erabili dira, baita gainontzeko gehienak ere noizbait. Izan ere, sexu/generoen arteko desberdintasun adierazgarria da, gizonak aipatu ere ez dituzten hurrengo taktikak agertu direla emakumeen kasuan, gizonak aipatutako gehienak baino maizago: “jokabide maitekorren plantak egitea”, “Inguratu/onartzeko derrigorra sentituko duzun leku batera eramatea” eta “indar fisikoa”. Era berean, taktiketan oharrak utzi dituzten emakumeek agerian uzten dute gizonak manipulatu zituela eta errudun sentiarazi zituela. Gure emaitzek Caiteli-k (2016) lortutakoekin antzekotasun handia daukate.

Bi sexu/generoen kasuan, gehien agertzen diren taktikak “ekitea” eta “estimulatzen edo berotzen saiatzea” dira. Dena den, aipatutako taktika kopuruan aurkitzen dugun aldea kontuan hartuta, esan dezakegu gehienbat gizonak erabiltzen dituztela emakumeen kontra. Gainera, uste dugu esanahia ez dela berdina,

emakumeek presio gehiago sentitzen dutela gizonak taktika horiek erabiltzean, gizonak emakumeek erabiltzean baino. Izan ere, beren desira bigarren maila batean dagoenez, uste dugu gertagarriagoa dela benetan nahi ez izan arren, onartzea. Gizonak gorenako eta emakumeek beheko kokapena duten heinean, ukazina da ekintza berak esangura eta ondorio desberdinak dituela bakoitzaren kasuan. Gure inkestan honen adierazle da ezezkoa ematean bestearen jarrerak deseroso, barregarri edo errudun sentiarazten dituela emakumeak gizonak baino gehiago.

Beraz, gure **bigarren hipotesia baieztatu dezakegu**, orokorrean identifikatu ditugun praktika zein taktika nagusien artean, emakumeen borondatearen kontra guztiak hainbatetan ezartzen edo erabiltzen direlako, eta gizonen borondatearen aurka soilik batzuk gutxiagotan.

Maiztasunei ere arreta eskaini nahi izan diegu, eta gure laugarren hipotesia formulatu dugu modu honetan: pertsona batek beste bati indarkeria behin baino gehiagotan ezartzeko aukera gehiago dago bikote egonkorretan beste harreman motetan baino. Aztertuek aitortutakoaren arabera, **emakumeen kasuan laugarren hipotesia baieztatu dezakegu. Gizonen kasuan, ordea, ezeztatu** behar dugu, sexu-indarkeria pertsona berdinen partetik behin baino gehiagotan pairatzeko aukera gehiago baitute, proportzioan, harreman sexualak izaten EZ dituzten lagun/ezagunen harremanetan.

Bestalde, ikusten dugu emakumeen gehiengoak adierazten duela pertsona berdinen partetik behin baino gehiagotan pairatu izana, eta gizonak kontrako, gehienek soilik behin pairatu dute pertsona berdinen partetik. Emakumeek zein gizonak sexu-indarkeria gehien pairatu duten harreman afektibo-sexuala bikote egonkorra da, 13tan eta 10etan, hurrenez hurren. Maiztasunekin erkatuz, ondorioztatu dezakegu gizonak behin pairatu dutela kasu gehienetan, eta emakumeek behin baino gehiagotan. Gainera, emakumeentzat indarkeria pairatu izanaz kontziente izatea zailagoa da harreman mota honetan besteetan baino, ia erdia galdetegia egin ahala konturatu baita. Gure iritziz, Jónasdóttir-ek (1993) aipatutako "libreki" ematen den maitasunarekin lotura handia dauka egoera honek. Emakumeek maite dutenen parteko sexu-indarkeria identifikatzeko eta aurre egiteko daukaten tresna gabeziaren ondorioz, gizonak, emakumearekin gero eta harreman estuagoa izan, orduan eta botere gehiago ezartzeko gaitasuna eskuratzen duela eta biolentzia-dinamikak



naturalizatzen dituela uste dugu. Bada, agerian geratzen da emakumeen kontrako sexu-indarkeria sistemikoa dela, eta gizonek pairatzen dutena bakanagoa.

Indarkeriaren norabideari dagokionez, gure **bosgarren hipotesiaren** arabera sexu-indarkeriak norabide bikotza izateko aukera gehiago ditu bikote egonkorretan beste harreman motetan baino. Alabaina, hipotesi hau **ezeztatu** dugu. Izan ere, bikote egonkorretan beste harreman motetan baino alde biko kasu gehiago egon arren, proportzioan ehunekorik handiena sexu-harremanak izaten dituzten lagun/ezagunen harremanak dauka. Beraz, datu hauen arabera, biktimak ezartzaileak ere izateko aukera gehiago dago sexu-harremanak izaten dituzten lagun/ezagunen artean, beste harreman motetan baino.

Ikusten dugu, ordea, kasu gehienetan norabide bakarrekoa dela indarkeria: gizonek ezartzen diete emakumeei. Honek agerian uzten du generoaren eraikuntzak alde bakarreko botere-harremanak suspertzen dituela (Hardy eta Jiménez), baita jendartearen mutila menderatzailea eta neska otzana den harreman afektibo-sexual biolentoen normalizazioa ere (Velasco, 2018).

Honek gure **hirugarren hipotesiraino** garamatza. **Baiezta dezakegu**, desiratu gabeko sexu-harreman baten aurrean emakumeek jarrera pasiboak hartzen dituztelako gizonek baino gehiagotan. Honen arrazoia izan daiteke orain arte behatu dugun emakumearen borondatearen baliogabetze eta deuseztapen sistematikoa. Honek ezetz esatera ez ausartzera bultzatzen ditzake emakumeak, gizonen erreakzio desatseginen zein bortitzen beldurrez. Beren nahimena adieraztea ezertarako balio ez duela ere pentsa dezakete, Villaseñor-Farías eta Castañeda-Torres-ek (2003) behatu bezala, ikusten baitugu emakumeek ezezkia emandako kasu askotan sexu-harremana burutu zela berdin-berdin. Jokaera hauek bat datoz Pérez-ek (2018) rol generizatuei buruz azaldukoarekin: emakumeen rol sexuala desira-objektuarena da, eta gizonena subjektu desiratzaleena. Argi geratzen da gizonek beren borondatea adierazteko askatasun handiagoa sentitzen dutela, eta bestearen erreakzioak eragin txikiagoa duela gizonengan emakumeengan baino. Izan ere, aipatu bezala, emakumeek baino gutxiagotan adierazi dute deserroso, barregarri edota errudun sentitu direnik ezezko bat ematean.

Gure seigarren hipotesiak bi atal ditu. Lehenengoak auziaren inguruko kontzientziari egiten dio erreferentzia. Ez kontatzeko edo kontatzea kostatzeko arrazoietan oinarrituz, ezezta genezake hipotesi hau, behatzen baitugu gizonen arrazoi nagusia esleitutako garrantzi eza dela, eta emakumeena kontzientzia eza. Alabaina, denboran zehar gertaerari emandako trataerari arreta eskaintzen badiogu, laster ohartuko gara emakumeek kontzientzia handiagoa erakusten dutela:

Batetik, ezartzailearekin zein ingurukoekin gertakizunaren inguruan hitz egiteko joera kontzientzia handiagoaren adierazle da. Gainera, kasu konkretu baten berri izan dugu: taktiketan gehiago zehaztu duen gizonaren oharrean, ikusten dugu indarkeria ezartzen ziola bere bikotekideari larritasunaz jabetu gabe, eta bikotekidea ere ez zen kontziente. Erlazioa bukatu ondoren, emakumea bizi zuenaz ohartu zen, eta gizonari azaldu zion. Beraz, gizona kontziente da emakumeak berarekin hitz egin duelako soilik. Bestetik, hasieran indarkeria EZ pairatu izana aitortzen dutenak baina ondoren baietz esaten dutenei arreta eskainiz, ikusten dugu emakumeen ehunekoek aldaera txikiagoa daukatela, beraz, galdetegi hasieratik kontzientzia handiagoa zeukaten esperientzia horien inguruan, beharbada iraganekoak direlako.

Beraz, esan genezake, hasiera batean emakumeek kontzientzia eza nahiko erakutsi arren, denbora igaro ahala gertaeraren inguruan gizonen baina kontzientzia handiagoa garatzen dutela, eta arazo moduan identifikatzen dituztela dinamika hauek gizonen baina gehiago. Gure ustez, hau gertatzen da beren buruak zalantzan jartzen dituztelako. Halaber, sistema heteropatriarkalaren botere sinbolikoak ahalduz eta askatasun sexualaren ilusio faltsuak txertatzen ditu emakumeengan, sinestaraiz honela eremu horretan libreki erabakitzeke nolabaiteko boterea daukatela. Horregatik, beren buruak biktima gisa hautematea deseraikitze prozesu baten ondorio da, hasierako ukapenetik hasten dena. Bada, esan dezakegu **seigarren hipotesiaren lehen atala baieztatzen** dela.

Ez da harrizkoa emakumeek arazoaren inguruko kontzientzia handiagoa garatzea lortutako emaitzak behatuta, beldurra bizitzen baitute. Honen adierazle dira erreakzio eta jokaeren atalean idatzi dituzten oharra. Izan ere, batzuk aditzera ematen dute emakumeak beren buruak mehatxatuta ikusten dituztela sexu-indarkeria egoeretan, arrisku errealean.

Bestalde, ohar batzuk agerian uzten dute emakumeek ardura beren gain hartzeko joera, arriskutsua dena Rivas et al.-en (2003) arabera, emakumeak uste badu bera dela indarkeriaren arrazoa, gertagarriagoa delako barkatzea eta harremana iraunaraztea. Lehenengo oharra, erasotzailea errugabetzeko asmoa erakusten du. Honek, ez kontatzeko edo kontatzea kostatzeko arrazoietan emakume dezentetan behatzen diren joeretara eramaten gaitu: erasotzailea babestekoa eta errudun sentitzekoa. Joera hauek maitasun erromantikoarekin eta emakumeak bertan duen rolarrekin lotzen ditugu guk, Bartolomé-k (2018) aipatutako uko egite pertsonal horrekin. Gizonaren desirak betetzeko sakrifikatu behar da emakumea, eta egin ezean, errudun sentitzen da eta gizonari "oraindik kalte gehiago" ez egiteko erantzukizuna bere gain hartzen du, besteen iritzietatik babestuz. Bere rolari jarraiki, besteen zaintza

edozerri gailentzen zaio, eta oharretan aipatzen duten bezala, arazoduna bera izango da beti, ez indarkeria ezartzen dion gizona.

Gizonen kasuan, ordea, garrantzi eman ez izanaren ondoren, agertzen den arrazoa lotsa da. Zeren lotsa? Kasu honetan ere, beren rolaekin lotzen dugu. Izan ere, gizontasun hegemonikoaren parte da sexu-harremanak izateko prest egotea beti, eta arau hori ez betetzeak lotsa sor diezaieke.

Bukatzeko, ikusi dugu **seigarren hipotesiaren bigarren atala, ezagutzari dagokiona, ez dela konfirmatzen** eta kontrakoa gertatzen dela, gizonak emakumeek baino ezagutza handiagoa adierazten baitute beren inguruko sexu-indarkeriaren gainean. Aipatzekoa da biktima eta ezartzaileei buruz jasotako erantzunen arteko aldea. Biktimei buruz galdetzean, gehiengoak (emakume zein gizonak) “emakumea” erantzun du. Hau aurreikusteko modukoa zen, ez soilik emakumeek sexu-indarkeria gehiagotan pairatzen dutelako, baita pairatzen duten gizonak ez kontatzeko joera daukatelako ere. Ezartzaileei dagokionez, ordea, bi sexuen gehiengoak adierazi du ez duela ezartzailerik ezagutzen. Deigarria da biktimen artean emakumeak guztiz gailentzea, baina erasotzaileen artean ezjakintasuna nagusitzea. Erasotzailea babesteko joera horren isla izango al da?

Ikusten dugunez, harreman afektibo-sexual heterosexualetan jazotzen den sexu-indarkeria konplexua da, eta bere atzean marko kultural-ideologiko indartsu bat aurkitzen dugu. Aipatzekoa da nozitu duen batek ere ez salatu izana, kontzientzia erreal ezaren edota erabateko naturalizazioaren adierazle baita. Sexu-harremanak hitzartutako betebeharra direnaren ideia oso sustraituta dagoela behatzen dugu. Honek, batez ere emakumeen askatasunaren kontra jotzen du. Izan ere, ikusi dugu gizonak ere pairatzen dutela sexu-indarkeria, baina emakumeengan inpaktu sakonagoa dauka, nabaria dena zehaztasunez azaldutako esperientzietan edo gertaera tratatzeko moduan. Esan bezala, emakumeen borondatea sistematikoki baliogabetzen da, plazer propioa alboratzen irakatsi diete eta ondorioz, ez dute bere burua sexualki ezagutzeko eta asetzeko baliabiderik. Subjektibitate eta legitimitate oro kentzen zaie emakumea besteen mesederako existitzen direnaren ideien, kosifikazioaren eta sexualizazioaren bidez. Uste dugu berebiziko papera jokatzen dutela paternalismoak eta emakumeen infantilizazioak ere: emakumea gustatzen zaiona erabakitzeke gai ez den kontsumo maskulinorako desira gabeko objektu sexuala da, eta gizona emakumeak behar eta nahi duena aukeratzeko zilegitasuna daukan subjektu boteretsua da. Gizonen sexu-bulkaden kontrolatzeko ezintasuna, biolentziaren erakargarritasuna eta emakumeen borondatea eraldatzeko gaitasun sexual mirariatsuaren uste faltsuak islatzen dira emakumeen nahien kontra jarduteko saiakeretan.

Honi tiraka, kezkarria iruidtzen zaigu gizonen gaitasun eza (ez daukatelako edo ez dutelako eduki nahi) emakumeen gorputz-espresioak interpretatzeko. Pasibotasunaren aurrean hartzen dituzten jarrera inbaditzaileek agerian uzten dute sexu-harremanetan generoen artean dagoen komunikazioa ideal estereotipatu eta falozentristetan oinarritzen dela. Izan ere, Pérez-i (2018) erreferentzia eginez, gizonen emakumeak desira gabeko objektu sexual bezala ikusten baldin badituzte, ezinbestean biolentzia bidez erlazionatuko dira beraiekin. Gizonen beren buruak emakumeen gorputzen gaineko eskubidedun gisa ikusten dituzten heinean, boterea ezartzen dute, eta horren bidez osorik menderatzen dituzte, barne-gatazkak sortuz. Hauen adierazle da erasotzailea babesteko emakumeen joera nabaria.

Ondoriozta genezake, beraz, gazteen jardura sexuala gizarte heteropatriarkalaren dimentsio guztien isla zintzoa dela, pribatuki normalizatua eta publikoki isilarazia dena. Pairatzen eta ezartzen dutenek detektatzeko zaila da. Balio, estereotipo zein iruditeri zurrun batek sostengatzen du, emakumeen menderakuntza eta gizonen botere eta pribilegioak oinarri.

Hezkuntza afektibo-sexualak izugarri kezkatzen gaitu. Ukaezina da esparru sexualean gazteek ez daukatela tresna adina besteekin komunikazio arin eta enpatiko bat garatzeko. Sexu/generoen pertzepzioen arteko talka da honen adibide: neskek gehiago adierazten dute pairatu izana, gizonen ezarri izana baino, eta gizonen gehiago adierazten dute pairatu izana, neskek ezarri izana baino. Argi dago ez dagoela ulermen zubirik norbanakoen artean, eta gizarteak bakoitzarengandik espero duenari erantzuteko grinean, sexu-harremanak zapuzten dira dominazio-harreman bilakatuz. Larriztekoa da plazerra oinarri izan beharko lukeen ekintza biolentzia iturri bilakatzea hainbestetan.

Gizarte hipersexualizatu honetan, funtsezkoa iruditzen zaigu, batetik, hezkuntza afektibo-sexualaren erabateko deseraikitze eta destruktioa, oinarri feministak dituen berreraikitze bati leku uzteko. Bestetik, ikusi dugun informazio hutsunea dela eta, berebizikoa da ikerketa larroak irekitzea, aurrerantzean sexu-indarkeria mota zehatz honi beharrezko arreta eskaintzeko, ikusgaitasuna delako emakumeak ahalduntzeko eta horren kontra egiteko lehen urratsa, dinamika horietan harrapatuta geratzea saiheste aldera. Era berean, genero eredu hegemonikoak ahultzeko pausoa izan daiteke, sexualitatearen ikuspegia zabaltzeko eta praktika sexualen mailakatze heteronomatibo zein koitozentrismo deuseztatzeko.

Dena dela, esanguratsu eta positibotzat jotzen dugu emakumeen hainbeste aitoren jaso izana. Eredu hegemonikoei egiten dieten erresistentziaren adierazle dira, apurka plazerraren kokapena zein jabetza zalantzan jartzen ari direla behatzen dugu eta paradigma aldaketa baterantz sareak ehuntzeko ardatz izan daiteke hau.

*“El sexo es para comunicarse y disfrutar: no se concibe como una moneda de cambio ni una transacción [...] Es nuestra obligación empezar a considerarnos sujetos de deseo y luchar contra toda violencia que nos considera objeto”*

(Zamora, 2018: 25).

## BIBLIOGRAFIA

- ADAMS-CURTIS, Leah E. eta FORBES, Gordon B. (2004). "College women's experiences of sexual coercion: A review of cultural, perpetrator, victim, and situational variables". *Trauma, Violence & Abuse*, 5, 91-122.
- AMURRIO, Mila (1995). "Jenero Kontzeptuaren inguruko hausnarketak". *Uztaro*, 13, 89-98.
- ARCARONS, Laura (2017). "El empoderamiento sexual como clave para la liberación de las mujeres". *Sexpol*, 124, 14-16.
- ANTONA, Alfonso eta MADRID, Juan (2007). "Adolescencia, inmigración y violencia sexual". *Informe SIAS*, 5, 95-104.
- AZPIAZU, Jokin (2017). *Masculinidades y feminismo*. Bartzelona: Virus.
- BENLLOCH, Isabel M., CAMPOS, Amparo B., SÁNCHEZ, Lucía G., eta BAYOT, Agustín (2008). "Identidad de género y afectividad en la adolescencia: asimetrías relacionales y violencia simbólica". *Anuario de psicología/The UB Journal of psychology*, 39(1), 109-118.
- BARTOLOMÉ, Julia (2018). "La atracción sexual y el mito del amor romántico". *Sexpol*, 130, 3-5.
- BEAUVOIR, Simone (1975). *El segundo sexo, tomos I y II*. Buenos Aires: Siglo XXI.
- BOURDIEU, Pierre (1997). "Espíritus de estado", P. Bourdieu, *Razones Prácticas: sobre la teoría de la acción*. Madril: Anagrama. (91-125).
- BOURDIEU, Pierre (2000). *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama.
- BURGOS, Elvira (2010). "Identidades de género: una mirada feminista", Rafael Lorenzo Alquézar eta Rubén Benedicto Rodríguez (zuz.) *Educación cívica. Democracia y cuestiones de género*. Bartzelona: Icaria. (243-272).
- CATIELI, Karen (2016). "Coerción sexual en el noviazgo en jóvenes universitarios". *Tlamati Sabiduría*, 7 (2), 1-15.

CEREZO, Ana I. (2006). "Las víctimas de la violencia doméstica", Enrique Baca, Enrique Echeburúa eta Josep M. Tamarit (zuz.) *Manual de victimología*. Balentzia: Tirant lo Blanch. (164-190).

CORRAL, Paz, ECHEBURÚA, Enrique eta AMOR, Pedro J. (1997). "Consecuencias psicológicas en las víctimas adultas de agresiones sexuales", María Lameiras eta Antonio López (zuz.) *Sexualidad y Salud. La transmisión sexual del VIH y las agresiones sexuales*. Santiago de Compostela: Tórculo Ediciones. (215-234).

DE MIGUEL LUKEN, Verónica (2015). *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015*. Madril: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, Centro de Publicaciones.

DEGUE, Sarah eta DILILLO, David (2005). "'You would if you loved me": Toward an improved conceptual and etiological understanding of nonphysical male sexual coercion". *Aggression and Violent Behavior*, 10, 513-532.

DELPINO, María Jesús, ERESTA, María Antonieta eta RIVAS, Cristina (2013). *Relaciones afectivas y sexualidad en la adolescencia*. Madril: Liga Española de la Educación.

Emakunde (2012). *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna*. Hemen eskuragarri: [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia\\_guias/eu\\_def/adjuntos/pub.violencia.machista.contra.mujeres.eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/adjuntos/pub.violencia.machista.contra.mujeres.eus.pdf)

Emakunde (2017). *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa: 2016 eta 2017ko lehen seihilekoa*. Hemen eskuragarri: [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia\\_evaluacion\\_informes/eu\\_def/adjuntos/eae\\_emakume\\_indarkeria\\_estadisticak\\_analisis\\_2016\\_2017\\_1\\_s.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/eae_emakume_indarkeria_estadisticak_analisis_2016_2017_1_s.pdf)

FERNÁNDEZ, Andrés A. eta FUERTES, Antonio (2005). "Violencia sexual en las relaciones de pareja de los jóvenes". *Sexología Integral*, 2(3), 126-132.

FORTÚN, María Ángeles D. L. C. (2014). *Factores predictivos del impacto psicopatológico en víctimas de agresión sexual*. Doktore tesia. Madril: Madrilgo Complutense Unibertsitatea.

FUERTES, Antonio, RAMOS, Maribel, DE LA ORDEN, Victoria, DEL CAMPO, Amaia eta LÁZARO, Susana (2005). "The involvement in sexual coercive behaviours of Spanish

college men: Prevalence and risk factors". *Journal of Interpersonal Violence*, 20, 872-891.

FUERTES, Antonio, RAMOS, Maribel eta FERNÁNDEZ-FUERTES, Andrés A. (2007). "La coerción sexual en las relaciones de los y las adolescentes y jóvenes: naturaleza del problema y estrategias de intervención". *Apuntes de Psicología*, 25 (3), 341-356.

GARCÍA, Concepción, OLIVARES, Carmen, SAN VICENTE, Mercedes eta JAIME, María Ángeles (2004). *Guía de atención integral a mujeres víctimas de delitos contra la libertad sexual*. Madril: Asociación de Mujeres Juristas Themis.

GIL CALVO, Enrique (1997). *El nuevo sexo débil*. Madril: Temas de hoy.

HARDY, Ellen, eta JIMÉNEZ, Ana L. (2001). "Masculinidad y género". *Revista cubana de salud pública*, 27(2), 77-88.

HARNED, Melanie S. (2001). "Abused women or abused men? An examination of the context and outcomes of dating violence". *Violence and Victims*, 16(3), 269-285.

HERNÁNDEZ, Elena, eta GONZÁLEZ, Rosaura (2009). "Coerción sexual, compromiso y violencia en las relaciones de pareja de los universitarios". *Escritos de Psicología*, 2(3), 40-47.

HERNÁNDEZ, Gabriela S., TAPIA, Alberto J., REYNAGA, Reyna G., eta MENDOZA, Martha R. (2015). "La coerción sexual asociada con los mitos de violación y las actitudes sexuales en estudiantes universitarios". *Salud mental*, 38(1), 27-32.

HIRD, Myra J. (2000). "An empirical study of adolescent dating aggression in the U.K". *Journal of Adolescence*, 23, 69-78.

JÓNASDÓTTIR, Anna G. (1993). *El poder del amor: le importa el sexo a la democracia?* Balentzia: Universitat de València.

JUARISTI, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Zarautz: Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua.

KATZ, Jennifer, CARINO, Andrew eta HILTON, Angela (2002). "Perceived verbal conflict behaviors associated with physical agresión and secual coercion in dating relationships: a gender-sensitive analysis". *Violence and Victims*, 17(1), 93-109.



Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. *Boletín Oficial del Estado*, 2011ko azaroaren 14ean, 274. zenbakia. Erreferentzia: BOE-A-2011-17779. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2005/02/18/4>

LEJEUNE, Chad eta FOLLETTE, Victoria (1994). "Taking responsibility: Sex differences in reporting dating violence". *Journal of Interpersonal Violence*, 9, 133-140.

LIVINGSTON, Jennifer A., BUDDIE, Amy M., TESTA, Maria eta VANZILE-TAMSEN, Carol (2004). "The role of sexual precedence in verbal sexual coercion". *Psychology of Women Quarterly*, 28, 287-297.

LÓPEZ, Esther (2012). "Agresión sexual". Teresa Pacheco (zuz.), Eva Garrosa, Esther López eta José I. Robles. *Atención psicosocial en emergencias*. Madril: Síntesis. (99-126).

LOZANO, María Pilar G. (2008). *Violencia en las relaciones de noviazgo entre jóvenes y adolescentes de la Comunidad de Madrid*. Doktore tesia. Madril: Madrilgo Complutense Unibertsitatea.

MILLET, Kate (1986). "Teoría de la política sexual". *Política sexual*. Balentzia: Cátedra. (67-99).

ORTEGA, Rosario, RIVERA, Francisco J. O. eta SÁNCHEZ, Virginia (2008). "Violencia sexual entre compañeros y violencia en parejas adolescentes". *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 8 (1), 63-72.

Osasun Mundu Erakundea (OME) (2002). *Informe mundial sobre la violencia y la salud*.

OSBORNE, Raquel (2001). *La violencia contra las mujeres. Realidad social y políticas públicas*. Madrid: UNED ediciones.

OSBORNE, Raquel (2009). *Apuntes sobre la violencia de género*. Barcelona: Bellaterra.

PÉREZ, Irene (2018). "El cuerpo sigue siendo un campo de batalla: desde nuestras calles hasta nuestras camas". *Sexpol*, 131, 22-23.

REY-ANACONA, César A. (2009). "Maltrato de tipo físico, psicológico, emocional, sexual y económico en el noviazgo: un estudio exploratorio". *Acta colombiana de psicología*, 12(2), 27-36.

RIVAS, Marina J. M., LOZANO, María Pilar G., eta GÓMEZ, José Luis G. (2003). "Violencia en las relaciones de pareja en adolescentes y jóvenes: una revisión". *Psicopatología clínica legal y forense*, 3(3), 23-39.

ROMERA, David (2018). "Naturalismos ¿Cómo se vive la sexualidad desde las masculinidades actualmente?" *Sexpol*, 130, 19-21.

RUBIN, Gayle (1986). "El tráfico de mujeres: notas sobre la "economía política" del sexo". *Nueva antropología*, 8(30), 95-145.

SALDÍVAR, Gabriela, RAMOS, Luciana eta ROMERO, Martha (2008). "¿Qué es la coerción sexual? significado, tácticas e interpretación en jóvenes universitarios de la ciudad de México". *Salud mental*, 31(1), 45-51.

SIPSMA, Eric, CARROBLES, Isabel, MONTORIO, Ignacio eta EVERAERD, Walter (2000). "Sexual aggression against women by men acquaintances: Attitudes and experiences among spanish university students". *The Spanish journal of Psychology*, 3, 14-27.

SMITH, Paige H., WHITE, Jaqueline W. eta HOLLAND, Lindsey J. (2003). "A Longitudinal perspective on dating violence among adolescent and college-age Women". *American Journal of Public Health*, 93(7), 104-110.

STETS, Jan E. eta PIROG-GOOD, Maureen A. (1989). "Patterns of physical and sexual abuse for men and women in dating relationships. A descriptive analysis". *Journal of Family Violence*, 4, 63-76.

STRUCKMAN-JOHNSON, Cindy, STRUCKMAN-JOHNSON, David eta ANDERSON, Peter (2003). "Tactics of sexual coercion: When men and women won't take no for an answer". *The Journal of Sex Research*, 40, 76-86.

VELASCO, Gema (2018). "Otro tipo de amor es posible". *Sexpol*, 130, 26-29.

VILLASEÑOR-FARÍAS, Martha eta CASTAÑEDA-TORRES, Jorge (2003). "Masculinidad, sexualidad, poder y violencia: análisis de significados en adolescentes". *Salud pública de México*, 45, 44-57.

ZAMORA, María (2018). "Mujer sentida. Mi sexualidad, mi responsabilidad". *Sexpol*, 130, 22-25.

# ERANSKINAK

## INKESTAREN GIDOIA

### ENCUESTA SOBRE VIOLENCIA SEXUAL EN LAS RELACIONES AFECTIVO-SEXUALES HETEROSEXUALES

Muchas gracias por participar en este estudio para nuestro Trabajo de Fin de Grado de Sociología. El cuestionario es totalmente ANÓNIMO y no tiene ningún ánimo de juicio o crítica hacia nadie. Os rogamos la mayor sinceridad posible, ninguna respuesta es mejor ni peor que otra. También os pedimos que contestéis a partir de las siguientes definiciones de estos conceptos, ya que son las que se han establecido para este estudio:

**Violencia sexual:** todo tipo de presión física o emocional ejercida para imponer a alguien cualquier clase de relación sexual.

**Relación sexual:** cualquier práctica que la persona encuestada perciba como “sexual”, no tiene porqué incluir contacto físico. Remarcamos que ni es solamente la penetración, ni la conlleva necesariamente.

**Relación afectivo-sexual:** nos referiremos solamente a las relaciones heterosexuales. Hemos establecido la siguiente clasificación:

- Pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien sueles tener relaciones sexuales (más de una vez)
- Relación sexual casual/puntual (una única vez, con desconocid@, conocid@, amig@...)
- Amig@/conocid@ con quien NO sueles tener relaciones sexuales (nunca las habéis tenido)

DICHO ESTO, PODÉIS COMENZAR EL CUESTIONARIO:

1. ¿Has tenido alguna vez algún tipo de relación afectivo-sexual heterosexual? \*

- Sí (puedes seguir con el cuestionario)
- NO (puedes abandonar el cuestionario, gracias)

2. Indica tu sexo/género: \*

- Mujer
- Hombre
- Otro

3. Indica tu edad: \*

- 18-19

- 20-21
- 22-23
- 24-25
- 26-30

4. ¿Crees que alguna vez has podido sufrir violencia sexual en una relación afectivo-sexual? ¿En qué tipo de relación? (opción de multirespuesta)

- No
- No estoy segur@
- Pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien sueles tener relaciones sexuales
- Relación sexual casual/puntual
- Amig@/conocid@ con quien NO sueles tener relaciones sexuales

5. ¿Crees que alguna vez has podido ejercer violencia sexual en una relación afectivo-sexual? ¿En qué tipo de relación? (opción de multirespuesta)

- No
- No estoy segur@
- Pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien sueles tener relaciones sexuales
- Relación sexual casual/puntual
- Amig@/conocid@ con quien NO sueles tener relaciones sexuales

6. ¿ALGUNA VEZ TE HAN CONVENCIDO/INSISTIDO/PRESIONADO PARA REALIZAR ALGUNA PRÁCTICA SEXUAL QUE NO QUERÍAS? ¿Cuál/es? (opción de multirespuesta)

- No
- No estoy segur@
- Sexo oral (felación/cunnilingus)
- Penetración anal
- Penetración vaginal
- Utilización de objetos/alimentos
- Masturbación
- No usar preservativo
- Algún tipo de tocamiento
- Algún tipo de golpe
- Eyaculación en la boca, vagina o ano
- Ingerir semen
- Vendar ojos
- Inmovilizar alguna parte del cuerpo (bondage)
- Tener relaciones sexuales en sitios públicos o con otras personas mirando
- Practicar sexo con varias personas a la vez
- Hacer grabaciones o fotografías
- Otras

Especifica si quieres:

7. ¿ALGUNA VEZ HAS CONVENCIDO/INSISTIDO A ALGUIEN PARA REALIZAR ALGUNA PRÁCTICA SEXUAL, AUNQUE AL PRINCIPIO NO QUISIERA? ¿Cuál/es? (opción de multirespuesta)

- No
- No estoy segur@
- Sexo oral (felación/cunnilingus)
- Penetración anal
- Penetración vaginal
- Utilización de objetos/alimentos
- Masturbación
- No usar preservativo
- Algún tipo de tocamiento
- Algún tipo de golpe
- Eyaculación en la boca, vagina o ano
- Ingerir semen
- Vendar ojos
- Inmovilizar alguna parte del cuerpo (bondage)
- Tener relaciones sexuales en sitios públicos o con otras personas mirando
- Practicar sexo con varias personas a la vez
- Hacer grabaciones o fotografías
- Otras

Especifica si quieres:

8. DE LAS SIGUIENTES SITUACIONES, ¿EN CUÁL TE HAS ENCONTRADO ALGUNA VEZ? (opción de multirespuesta)

- Se han quitado el preservativo sin que tú te dieras cuenta
- Alguien te ha mentado diciendo que había tomado alguna medida anticonceptiva y habéis tenido relaciones sexuales sin protección
- Te han grabado o fotografiado sin que tú lo supieras en una relación sexual
- Alguien te ha ocultado que tenía una Enfermedad de Transmisión Sexual y ha tenido sexo oral, anal o vaginal sin preservativo contigo
- No estoy segur@
- Ninguna

9. DE LAS SIGUIENTES SITUACIONES, ¿EN CUÁL TE HAS ENCONTRADO ALGUNA VEZ? (opción de multirespuesta)

- Me he quitado el preservativo sin decírselo a la otra persona
- He dicho que había tomado alguna medida anticonceptiva siendo mentira, y he tenido relaciones sexuales sin protección
- He grabado o fotografiado a alguien en una relación sexual sin decírselo
- He ocultado que tenía una Enfermedad de Transmisión Sexual y ha tenido sexo oral, anal o vaginal sin preservativo
- Ninguna

10. ¿ALGUNA VEZ HAS COMENZADO A TENER RELACIONES SEXUALES CON ALGUIEN, Y POSTERIORMENTE HAS QUERIDO PARAR?

- Sí
- No

En caso de que sí, ¿qué has hecho? (opción de multirespuesta)

- Le he dicho que no quería seguir
- No se lo he dicho verbalmente, pero me he mostrado pasiv@, sin ganas
- No se lo he dicho y he fingido que seguía queriendo
- Otra

Especifica si quieres:

¿Qué ha hecho la otra persona? (opción de multirespuesta)

- No ha parado
- Ha intentado seguir un rato hasta que ha parado
- Ha parado y se ha enfadado
- Ha parado y se ha mostrado molest@
- Ha parado y su actitud te ha hecho sentir incómod@, ridícul@ o culpable
- Ha parado y te lo ha echado en cara en algún momento (inmediato o posterior)
- Ha parado y su actitud NO te ha hecho sentir incómod@, ridícul@ ni culpable
- Otra

Especifica si quieres:

11. ¿ALGUNA VEZ ALGUIEN HA INTENTADO INICIAR UNA RELACIÓN SEXUAL CONTIGO, LE HAS DICHO VERBALMENTE QUE TÚ NO QUERÍAS, PERO ESA PERSONA HA SEGUIDO?

- Sí
- No

En caso de que sí, ¿cómo has reaccionado? (opción de multirespuesta)

- Intenté pararle y lo conseguí
- Intenté pararle sin conseguirlo, me resistí pero me sometió a la fuerza
- Intenté pararle sin conseguirlo y adopté una actitud pasiva
- No intenté pararle, adopté una actitud pasiva
- No intenté pararle, me esforcé para complacerle
- Otra

Especifica si quieres:

12. ¿ALGUNA VEZ ALGUIEN HA INTENTADO INICIAR UNA RELACIÓN SEXUAL CONTIGO, TE HAS MOSTRADO SIN GANAS (NO VERBALMENTE, SINO CORPORALMENTE, SIN MOSTRAR DESEO), PERO ESA PERSONA HA SEGUIDO?

- Sí

- No

13. SI HAS CONTESTADO QUE SÍ A ALGUNA PREGUNTA QUE IMPLIQUE ACTOS EN CONTRA DE TU VOLUNTAD:

- Me ha pasado una sola vez con una misma persona
- Me ha pasado más de una vez con la misma persona
- Me ha pasado una sola vez con diferentes personas
- Me ha pasado más de una vez con diferentes personas

Indica tu relación con esa/s persona/s en el momento del/de los suceso/s (opción de multirespuesta):

- Pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien sueles tener relaciones sexuales
- Relación sexual casual/puntual
- Amig@/conocid@ con quien NO sueles tener relaciones sexuales
- EX pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien SOLÍAS tener relaciones sexuales
- Persona con quien TUVISTE una relación sexual casual/puntual
- EX amig@/conocid@ con quien NO solías tener relaciones sexuales
- Otra

¿Que "táctica" dirías que ha/n utilizado para llevarlo a cabo? (opción de multirespuesta)

- Chantaje
- Manipulación
- Obligar
- Insistir
- Despreciar
- Intimidación
- Amenaza(s)
- Dar un ultimátum
- Fuerza física
- Reproches
- Victimizarse
- Alcohol u otras sustancias
- Intentar estimularte o excitarte
- Cuestionamiento
- Ridiculizarte
- Fingir comportamiento cariñoso
- Buscar excusas para aproximarse
- Acorralarte/llevarte a un lugar donde sabe que sentirás la obligación de acceder

- Otras

Especifica aquí, si quieres, más detalladamente la táctica:

(por ejemplo, me dijo que parecía que ya no le quería, me dijo que era una “estrecha”, me siguió tocando, me preguntó si estaba seguro de mi orientación sexual, me llevó a su casa donde no había nadie...)

¿Lo has hablado con quien te lo ha hecho?

- Sí
- No

¿Cómo has actuado ante el suceso?

- Lo he denunciado
- Lo he hablado abiertamente
- Se lo he contado a alguien cercano
- Se lo he contado a alguien cercano, una vez que la relación ya había terminado
- No lo he contado

Si no lo has contado o has tardado en hacerlo, ¿por qué ha sido? (opción de multirespuesta)

- No le di demasiada importancia
- No fui muy consciente de lo que pasaba
- Me dio vergüenza
- Me dio miedo
- Me sentía culpable
- Para proteger/no perjudicar a quien me lo había hecho
- Otra

Especifica, si quieres:

14. SI HAS CONTESTADO QUE SÍ A ALGUNA PREGUNTA QUE IMPLIQUE ACTOS EN CONTRA DE LA VOLUNTAD DE OTRA PERSONA: indica tu relación con esa/s persona/s en el momento del/de los suceso/s (opción de multirespuesta)

- Pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien sueles tener relaciones sexuales
- Relación sexual casual/puntual
- Amig@/conocid@ con quien NO sueles tener relaciones sexuales
- EX pareja estable
- Amig@/conocid@ con quien SOLÍAS tener relaciones sexuales
- Persona con quien TUVISTE una relación sexual casual/puntual
- EX amig@/conocid@ con quien NO solías tener relaciones sexuales
- Otra



¿Que "táctica" dirías que has utilizado para llevarlo a cabo? (opción de multirespuesta)

- Chantaje
- Manipulación
- Obligar
- Insistir
- Despreciar
- Intimidar
- Amenaza(s)
- Dar un ultimátum
- Fuerza física
- Reproches
- Victimizarse
- Alcohol u otras sustancias
- Intentar estimular o excitar
- Cuestionamiento
- Ridiculizar
- Fingir comportamiento cariñoso
- Buscar excusas para aproximarte
- Acorralar/llevar a un lugar donde sabes que sentirá la obligación de acceder
- Otras

Especifica aquí, si quieres, más detalladamente la táctica:

15. ¿CONOCES A ALGUIEN QUE HAYA SUFRIDO VIOLENCIA SEXUAL EN UNA RELACIÓN AFECTIVO-SEXUAL? ¿Es hombre o mujer?

- No conozco
- Mujer
- Hombre


16. ¿CONOCES A ALGUIEN QUE HAYA INFLIGIDO VIOLENCIA SEXUAL EN UNA RELACIÓN AFECTIVO-SEXUAL? ¿Es hombre o mujer?

- No conozco
- Mujer
- Hombre

Habéis finalizado el cuestionario. Muchas gracias de nuevo por completar la encuesta, toda participación es de gran ayuda para realizar esta investigación.


Sin más que añadir, gracias y un saludo.

**1. Grafikoa: EMAKUMEEK PAIRATU ETA EZARRITAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN AFEKTIBO-SEXUALETAN EHUNEKOTAN: HASIERAKO GALDERA.**




Iturria: norberak egina.

**2. Grafikoa: GIZONEK PAIRATU ETA EZARRITAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN AFEKTIBO-SEXUALETAN EHUNEKOTAN: HASIERAKO GALDERA.**




Iturria: norberak egina.

**3. Grafikoa: EMAKUMEEK PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**4. Grafikoa: EMAKUMEEK EZARRITAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**5. Grafikoa: GIZONEK PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**6. Grafikoa: GIZONEK EZARRITAKO SEXU-INDARKERIA HARREMAN MOTAREN ARABERA: LEHEN ETA BIGARREN GALDERAREN ARTEKO ALDEA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**7. Grafikoa: ALDEBIKOTASUNA SEXUAREN ARABERA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**8. Grafikoa: ALDEBIKOTASUNA HARREMAN MOTAREN ARABERA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**9. grafikoa: SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA SEXUAREN ARABERA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**10. grafikoa: BIKOTEKIDE EGONKOR BATEN MARKOAN PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**11. grafikoa: HARREMAN SEXUALAK IZATEN DITUZTEN LAGUN/EZAGUNEN MARKOAN PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**12. grafikoa: HARREMAN SEXUAL PUNTUALEN MARKOAN PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.


**13. grafikoa: HARREMAN SEXUALAK IZATEN EZ DITUZTEN LAGUN/EZAGUNEN MARKOAN PAIRATUTAKO SEXU-INDARKERIAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.




**1. diagrama: EMAKUMEEK PAIRATUTAKO INDARKERIA SEXUALA: PRAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**2. diagrama: GIZONEK PAIRATUTAKO INDARKERIA SEXUALA: PRAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**3. diagraman: EMAKUMEEK EZARRITAKO INDARKERIA SEXUALA: PRAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**4. diagrama: GIZONEK EZARRITAKO INDARKERIA SEXUALA: PRAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**14. grafikoa: ZURE BORONDATEAREN KONTRAKO ZEIN EGOERA BIZI DITUZU?  
SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**5. diagrama: EMAKUMEEK PAIRATUTAKO INDARKERIA SEXUALA: TAKTIKAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

6. diagrama: GIZONEK PAIRATUTAKO INDARKERIA SEXUALA: TAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.




Iturria: norberak egina.

7. diagrama: EMAKUMEEK EZARRITAKO INDARKERIA SEXUALA: TAKTIKAK  
EHUNEKOTAN.




Iturria: norberak egina.

8. diagrama: GIZONEK EZARRITAKO INDARKERIA SEXUALA: TAKTIKAK EHUNEKOTAN.




Iturria: norberak egina.

**9. diagrama: SEXU-HARREMAN BAT HASI ONDOREN GELDITU NAHI IZAN DUTEN  
EMAKUMEEN JOKAERA EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.


**10. diagrama: SEXU-HARREMAN BAT HASI ONDOREN GELDITU NAHI IZAN DUTEN  
GIZONEN ERREAKZIOAK EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.




**11. diagrama: HORREN AURREAN BESTEAK (GIZONAK) IZAN DITUEN ERREAKZIOAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**12. diagrama: HORREN AURREAN BESTEAK (EMAKUMEAK) IZAN DITUEN ERREAKZIOAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**13. diagrama: JOAKERAK ETA SUERTATUTAKO EGOERAK EZETZ ESAN ETA BESTEAK JARRAITU DUENEAN: EMAKUMEEK ADIERAZITAKOA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**14. diagrama: JOKAERAK ETA SUERTATUTAKO EGOERAK EZETZ ESAN ETA BESTEAK JARRAITU DUENEAN: GIZONEK ADIERAZITAKOA EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**15. diagrama: PASIBOTASUNA ERAKUTSI ETA HALA ERE BESTEAK JARRAITU DU?  
EMAKUMEEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**16. diagrama: PASIBOTASUNA ERAKUTSI ETA HALA ERE BESTEAK JARRAITU DU?  
GIZONEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**17. diagrama: HITZ EGIN DUZU HORRI BURUZ EZARRI DIZUNAREKIN? EMAKUMEEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**18. diagrama: ZER EGIN DUZU? EMAKUMEEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**19. diagrama: KONTATU EZ BADUZU EDO KONTATZEA KOSTATU BAZAIZU, ZERGATIK IZAN DA? EMAKUMEEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**20. diagrama: HITZ EGIN DUZU EZARRI DIZUNAREKIN? GIZONEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**21. diagrama: ZER EGIN DUZU? GIZONEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**22. diagrama: KONTATU EZ BADUZU EDO KONTATZEA KOSTATU BAZAIZU, ZERGATIK IZAN DA? GIZONEN KASUAK EHUNEKOTAN.**




Iturria: norberak egina.

**15. grafikoa: GIZONEK DUTEN EZAGUTZA BEREN INGURUKO INDARKERIA SEXUAL HONI BURUZ EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.

**16. grafikoa: EMAKUMEEK DUTEN EZAGUTZA BEREN INGURUKO INDARKERIA SEXUAL HONI BURUZ EHUNEKOTAN.**



Iturria: norberak egina.